

Alvaro Rabelli
EGURREZKO HANKAK

ALVARO RABELLI

**EGURREZKO
HANKAK**

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO
2006

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Egilea: Alvaro Rabelli

© Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S.L.L.
Diseinua: Ikeder
Azala: Daniel Tamayo

Lege Gordailua: BI-3232-06
ISBN: 84-89816-01-8

PROLOGOARENA

Joxek, domeketako paseoa egiten joiala, aspaldi zarratuta egoan lantegiaren hesi zikinean hutsune zuria aurkitu eban. Hitzetik hortzera, klarion zati bategaz letra handiz idatzi eban:

POSIBLE DA BESTE MUNDU BAT

MICHEL

Udako azken egunek, hur egoan hurrengo urte sasoiaren etorrerea iragarriz, lehenengo laino grisaxkak agiri ebezan zeru-mugan. Oraindino iluntzeari erion odol gorritasun bizi ha, daborduko nabarmen laburtu zan egunaren hondarrean tragetan zan, alperrikako ahaleginetan tragau be. Lur txokoetan jirabiraka ebilen haize-sorginak hautsa eta jausiriko lehenengo orbel lehorrak zirimola txikar baina azkarretan harrotzen ebazan. Hego bako tximeleten antzera.

Michelek ondo ekian horreek zantzo guztiok zer ekarriko eben. Etxea eta errekatxoaren artean lurrin gozodun arbola tantaiek mugatzen eben soloan, udako sargoriak nahikoa idor itxitako lurraren gainera atxurra jausten ixten eban bitartean, bere kolkorako:

—Aldaketa jakak, laster baten izango joagu hodeia.

Une batez, urruneko lainotza trinkoari begiratuaz, lepazurrean gora bildurrezko hotzikarearen usigia sentidu eban. Beharrari bat-batean laga eta egun horretako uzta urria aldean

eroiala bere gorputz nekatuan, etxe barrura zuzendu zan. Michelen urrats nekosoan aurrean, bazirudian oreka galdu horretan zibi-zabuka ebilela, etxe lander eta korrokoila zabaltzen zan. Lau altzari zahar hautsez beteta gela ilun baten, han bertan, bazterrean, ohe baldres bat, eta beste baten, bape berotzen ez eban sute ahul bat, besterik ez. Hormetan, osteran, denpo-rearen igaroak beilegitutako tren zaharren argazki mordoa ikusten zan. Hango apaingarri bakarrak. Michelek, porru eta kipulak sabaian zintzilik egozan soketan kordatu ostean, mahai gainean eukan koadernoak zabaldu eban.

—Zortzi-zortzirak, Vichyko espresoa orduan pasa dok, ederto.

Ohar hori idatzi eban sitsak jandako koaderno zaharraren ia ikusten ez ziran lerroetan. Alboan, ezabatuxeago, beste ohartxo bat agiri zan.

—Gauerdian 12a Clermonetik.

Michelek ez eban oharra ikusi gura izan.

Kanpoan, haize bufadak gero eta indartsuagoak ziran. Halanda be, gizon meharra herrira joateko atontzen hasi zan. Pisuari nekez eusten eutsan armairu batetik aspaldiko lanbideko jantzia atera eban. Prakak, urrezurizko botoi-dun koratiloa, zimendutik harako oinetako baltzak, eta azkenez, kepi antzeko kapelea

jantzi eban kasko zirtzil eta edurtuan. Segidan, txistua koratiloaren sakelan gorde eta paparretik behinola orratzak herdoildu jakozan erlojua eskegi eban. Betiko legez, ilunabarrean joaten zanean, geltokiko olio-kriselua iziotu eta aldean eroaten eban.

Itxura horretan jo eban kilometro eskas batera egoan herri aldera. Hara heltzeko etxe albotik igaroten zan burdinbide uherretan barrena joan behar izaten eban. Bagoi eta errail pusken artean biziagotzen zan haize zakarraren eraginez, haren ibilkerea are saskelagoa egiten zan. Burdina zaharren zirrikituetatik haize arin baten txistua isurtzen zan; Michelek eguraldiaren gorabehera eta ekanduai neurria hartuta eukotsen, baina. Herrira bidean, Mistralek ekarritako mamu trapalak balira lez, burdinbideetan zehar be, Probentzako mahastietan behar egin ostean iparralderantz oinez abiatzen ziran alogereko araldeak topau ebazan. Amabako lanorduetan eguzkiak kiskalitako gizonen aurpegian, soldata jaso barriaren alaia euki arren, nekea zan nagusi. Emakumeengan be, nekearen nekez, seinek ez eben topetan esne tantarik ahoratzeko. Prisaz ebilzan danak, prisaz hurreratzen jaken hodeitik ahalik arinen babesteko, prisaz iparraldeko beharlekuetan lehenbailehen beharra bilatzearren, hurrengo

negualdia egoitza duin baten beroan igaro ahal izateko. Atzetik, besteengandik bereiz, kitanuak eta beste narrubaltz trauskil batzuk, beti alai, beti itzal.

Michelek hodeiaren lehenengo tanta lodiak sorbaldan jausten igarri ebazan herriko taberna aurrera heldukeran. Ateari bultz egin eta mostradorerantz urrats geldoaz jo eban artez-arte. Barruan, tabernariez gain, ez egoan besterik arratsaldeko azken bezeroak baino, mahai baten inguruan karta jokoa amaitu guran. Kanpoko indriskearen indarrak zelaiko zerrautsa harrotu ebanean, orduan, begiratu eben ea nor ete zan ezordu horretan etorrena. Michelen itxura baldresa zala ikusi ebanean, ezeren ardura barik segitu eben jokoan. Ez eben agurtu. Bakarrik, mahaikideen artean egoan Mauricek, enparauek ulertu ezin izan eben zeozer marduzkatuz, tirriaz begiratu eutsan luzaz, ekarren asmoa igarri nahiko baeban legez. Micheli be, bazirudian ez eutsala ardura nor egoan tabernan une haretan. Barran egoan gizonak andreari berehala egin eutsan keinua zerbitzatzan joan ekion. Joan orduko, baina, ahopeka, beso batetik gogor oratuta, zemai doinuaz zera erausi eutsan:

—Zerbitzatu egion morroi horri, baina galapan joan daitela! Ez jonat tabernan gaur gero gehiago ikusi gura, ulertu dona?

—Tira gizona, koitadu hutsa baino ez dok, ez dok ikusten ala?

Barrara hurreratu eta esku dardaraz edan eban dzanga batez tabernariak eskeintzen eutsan basoerdia.

—Gabon jauna! Denpora txarra dogu gaur, eh? Bertoraino ailegetan da haizearen hotsa.

Bigarren txikitoa ezpaneratuz:

—Ez da haizearen hotsa, trenena baino, gero eta ozenago egiten dira.

—Zu beti bardin trenen kontu horregaz, bada, hor kanpoan honezkero ez da trenik.

—Bai! Neuk ikusten dodaz; ez deust inork sinistu gura, baina egia da!

Artean, harrikoa egiteari itxi barik, barrea-ren beste ertzetik gizonak amorruez entzuten eban emaztearen barriketea. Hantxe bertan emongo eutsan gustura zaplastadea, bere ustez zoro hutsa zan morroi haregaz berba egiteari behingoz itxi eion. Baina, horretan, Michelen betiko aipuak entzuteaz nazkatuta edo, botila bete ardao lagun ebalá, bakarrik laga eban. Alabaina, gizon zaharrak bere burua alkohol eta hiletetan ito baino lehen, haganako erruki sentipena izan eban.

Mahaikoek buru-belarri segitzen eben euren jokoan, kaleko hodeiari ardurarik hartu barik. Txokorren ke eta koñak zurrutaden artean,

Vic-le-Vicomte herrixkara etorritako osagilea, barreari eutsi ezinik egoala, gizon bakartiaz konturatu zan.

—Nor da lehen sartu dan gizon makaltxuori? Hor barra ondoan dagoan hori.

Ondoko batek, Michel egoan aldera begirada jaso barik.

—Hori Michel dozu jauna, tren geltokiko nagusi zaharra.

—Geltokiko nagusia? Hemendik aspaldian ez da trenik igaroten ba-ta!

—Bai, holan da jauna; hor ikusten dozun gizon horrexen erruz ez da trenik hemen.

—Zer? Zelan ba? Kontaidazue zelan izan zan hori!

Mahaikoek, osagilearen guraria entzutean, alkarri begiratu eutsien, antza ez ebazan inork aspaldiko kontuak larregi haizeratu gura. Baina erdi isilean:

—Orain dala hamabost urte jazo zan, gaurko lako gaba euritsu batez. Clermont-Briodu egunean lau bidaia egiten ebazan trenak, hau da 12ak, hemen eban geltokia gaueko azken bidaiari. Betiko lez, trena ordurako heldu zan, ordu bata emontsuetan. Hamar minutuko geldiunea egiten eban beti; baina, gau haretan gauzak ez joiazan bape ondo. Egun osoa emona eban euria botaten eta Allier errekea ordu-

rako guztiz harrotuta etorren, ura gainez egiteko puntuan egoan. Horregaitik, Griselek, 12aren makinistek —A zer mutil on puska! Neuk ezagutu neban— geltokian itxarotea erabagi eban, baina orduan...

—Jauna, errekea harrotuta dator!

—Bai, bajakiat, baina zubia sendoa dok.

—Ez dot uste jauna, askotan igaro behar izaten dot bertatik, zubia dardara baten dago, ez deutso eutsiko; mesedez, trena lotu behar dogu!

—Ez, gaur gauean barriro be pasako dok, ipini egik trena martxan!

—Lar arriskutsua dala dirautsut! Ni ez naz joango! Badakit zubia gaur gauean hondatuko dana, ez ditut ehun lagun ito nahi!

—Zer? Ez dozak aginduak beteko? Hoa berehala, ez badok lanpostua galdu gura!

Biharamunean gizon zahar batek ekarri eban albistea, zubia hondatu zala trena pasakeran. Dan-danak ito ziran, ia ehun lagun guztira. Michelek behartu eban makinistea zubia zeharkatzera. Harrezkero linea hori zarratuta dago.

—Jainkoarren! Eta Michel, orduan?

—Ferrokarriletatik bota eben, hori baino ez. Orain zoratu jako burua, beharbada ez deutso bere buruari parkatzen.

—Guretzat, jakina, hiltzaile zoroa da, berarena izan zan errua!

Isiltasun astuna egin zan guztien artean, barrako gizonari zeharka begiratzen eutsien bitartean. Eta holan, jokoia amaitutzat emonda, batera urten eben tabernatik. Urtetean, tabernariak gabonak opatu eutsiezan, Micheli ez eutsien ezer esan.

Micheli, artean, kriseilu erdi agortuaren argipean, edalontziak irunsi ahala bekokia iluntzen jakon. Zimurduren tolesduretan bildur keinuak nabarmen egiten eutsan tenk. Ardaotan galdua eban begiradea, burumakur. Marmarka, ahoari erion alkohol sunda latzagaz batera, gero eta ulergatxagoak ziran murtzikatzen ebazan berba urduriak.

—12a, 12a heltzeko zorian jagok.

Tabernariari, ez haren senarrari oster, egoera horretan ikusita errukitzen jakon.

—Gizona! Zer dinozu hor penatuta? Belu da, zergaitik ez zara etxeratzen?

—Ez dozu entzuten kanpotik datorren hots hori?

—Bai gizona, hodeiak dakarren mistrala da.

—Ez, ez da, 12a dozu hurreratzen. Hodeia dan gauetan zubirantz igaroten ikusi izan dot. Beti bardin, geriza espektral luze bat galdaren sutan arnasestuka. Tren hori ez da egundo gel-

tokian lotzen, ez doa inor; baina, sarri askotan ikusi izan dot neure burua lokomotora horretan, makinistearen lekuan, artez, karran, hondamendirantz doala.

—Jesus gizona! Ez zeunke holangorik esan behar.

—Zeuk be ez deustazu sinisten, ezta?

Andreak ez eutsan erantzun. Beharbada Michelen zoro-berbak baino ez ziran izango. Holan behinik behin sinistuarazo eutsan bere buruari.

—Emakume! Zertan habil txotxolo horregaz? Bota ein behingoz!

Oihu egin eutsan senarrak suminduta, gehiago jasan ezinik. Emazteak ez eutsan jaramon handirik egin baina, Michelek ezer esan barik, erlojuari begiratu eta edaria ordainduta kalera arteztu ebazan urrats mozkortiak, ez azken aipua egin barik, ostera.

—Bajatok, langetara joango nok.

Esan eta gizonaren geriza narrasa euripean galdu zan. Bakarrik, txitean-pitean, kriseilua-
ren argi berde eta gorriak salatzen ebazan bere lorratzak kaminoko potxingo idoitsuetan. Gel-
toki zaharrerantz joian.

Bestalde, tabernea zarratzerakoan:

—Zergaitik ibili haz berbetan morroi ziztrin horregaz? Hamaika bider esan deunat ez doda-

la hemendik ikusi gura, zoro arriskutsua dona eta.

—Zer dinostak gizona? Errukia baino ez joat sentitzen, koitadu batentzat amorrua baino ez ete joagu eukiko ba?

—Hik errukia aitutzen dona? Ez dona gogoratzen halango batez Mauriceri egin eutsana, ez?

Senarrak ostera be gogoratuarazo behar izan eutsan Maurice herriko auzokideagaz izan eban istilua. Behin, arratsalde batez, zelaitik gurdiaz etorrela, trenbide zaharreko langetara helduta topau zan Michelegaz. Langak jatsita eukazala ikustean gurdia bat-batean lotu behar izan eban.

—Baina hi, zertan hago? Idegi egizak horrek langok!

—Ez, trena jatok, itxaron egik.

—Baina, hi burutik hago. Idegi behingoz, zoro alu horrek!

Berbok entzun eta laster, Michelek, guztiz senetik urtenda, suminduta, Mauriceri samatik oratu eutsan. Ez eban ezegaitik be berari zoroa deitzerik onartzen. Egun haretan Mauricek, mailatu samar, lortu eban alde egitea Michelegazko ulertuezinetik. Halanda be, jazotakoa auzokideen artean bala-bala zabaldu zan. Ez zan dudarik. Michel baztertu beharreko bene-

tako zoroa zan hasikera-hasikeratik erruduntzat hartu eban herriko jentearentzat. Harrezkero, Micheli geratzen jakozan ate apurrak bata bestearen atzean behin betiko zarratu eutsiezan.

Bien bitartean, tabernako senar-emazteak oherako ziranean, handik apur batera, herriaren kanpoaldean, gizon baten isla trenbide erdian ipinita, bakardaderik ilun gordinenean, une horretan eragoion indriskeak ikusten ixten eban ezerezari begira. Zain.

Biharamunean, ingurumarian olgetan ebilzan ume batzuek topau eben Michelen gorpua. Arineketan bertaratu zan herriko jente guztiak, danak harriturik, ikusi ahal izan eban. Gorpua erdibituta, txiki-txiki eginda, agiri zan trenbide erdian, zapaldu izan balebe lez, eta, beso baten, odolez urratuta, zenbaki baten marra gardenak, agirikoak, ikusten ziran. 12a.

AMETSARENA

Amets egin neban txalupa baten nengoala Europara bidean alboan hamabi herrikide nituala. Ikaratu egin nintzan.

Esnatu eta hantxe nengoan txalupa baten Europara bidean alboan hamabi herrikide nituala.

ALIZIA

Alizia ez zan harritu untxi zuri harek ordua eskatu eutsalako. Normal-normala izango zan harritzea untxi zuri bat berbetan hasten dalako, baina Alizia halangoa zan. Baserrian jaio zanean, baekian ez zana pertsona arrunta izango. Berak be gauza bera uste eban, espiluaren bestaldean jaioten ikusi eben bazterrak ez ziran inon agiri, berak irudikatzen ebazanean. Holangoxea zan Alizia. Benetan harritu ebana untxiak eukan priesea izan zan. Danak eukien prisa mundu haretan. Ordua eskatu eta arin baten murgildu zan pozuan. Pozu harek orratz bako erlojua zirudian, erloju bat ertzetatik tolestua, moropilo antzera. Alizia, Alizia zalako, untxiaren atzean sartu zan pozuan, murgildu egin zan denporearen pozuan. Eta beste lurralde baten agertu zan bat-batean. Untxia galdu eban begi-bistatik une batez, eta orduan hartu eban gidaririk ez eroian tranbia beilegia, letra berdez margoturiko gaseosaren iragarki handia eukana. Tranbian bera bakarrik joian, triki-li-trakolo. Imajinatu ezineko herriak arin igaroten ziran bere begien aurretik, nekez irakur-

ten ebazan izenak, une batez jaio zan etxea os-
tera be ikusi ebalu uste izan eban, baina ezin...
eta azken geltokia, Lurralde Miresgarria.
Hantxe itxi eban tranbiak, kale erdian bakarrik
itxi be. Beste inor ikusi ez eta teontzi laranja
bati galdetu eutsan nora joan eitekean lurralde
miresgarri haretan, hain dirdiratsua eta erakar-
garria zirudian haretan. Baina teontzi laranja
harriduraz jaso ebazan bekainak eta lurrunez-
ko hasperen sakona itzuri eban sur luzetik, ez
eban ezer esan, ezer bere ez; beharbada, *pluf*
edo *buf* soil bat entzungo eban Aliziak. Un-
txiak barrero be urten eutsan bidera eta Ali-
ziak, Alizia zalako, jarraitu egin eutsan. Un-
txiak eroan eban jauregiko lora debekatuen lo-
rategira, lora baltzen lorategira. Bertan hasi
zan olgetan karta itxurea eben peoi soldadu
barregarriakaz, eta burla egiten eutsen soldadu
guztien buruak moztu nahi ebazan erregineari.
Burla egiten eutsen handik igaroten ziran guz-
tiai. Burla biziari.

Alizia espiluaren aurrean etorkizunaz eta
izandako ameseteaz pentsetan egon da ospita-
leko gela zurian, hil honetan bigarren droga
gaindosia gainditu eta gero. Aspaldiko partez
euria daragoio Bilboko teilatu gaineetan.

AITAREN AZKEN BORONDATEA

Ezin esan gure aita hil zanean asko sentidu nebanik. Guztiz kontra, asko poztu nintzan. Gorrotagarria izan jatan txiki-txikitatik. Etxean jasoten genduzan irain eta zigorrak herri buelta osoan entzuten ziran. Ama barik itxi ginduezan golpeak behin baino ez ziran entzun, ostera. Gizon harek ez eban egundo be euki guretzat maitasun barbarik.

Heldutasunera heldu ahala, astiro-astiro danok joan ginan aitaren etxetik urruntzen. Baina ez erabat. Izan be, urteetan bizi izandakoa gugaz etorten zan edonora, gogoan gendukan iltzaturik, askatu ezinik. Gaur lez. Aitaren azken borondatea entzuten etorri behar izan dogu. Ez genduan herentzian ezer itxiko euskunik espero, gura be ez genduan. Desatsegin egin jat oso aitaren azken berbak entzutea, bera bertan egon izan balitz lez aditu dodaz, baina are desatseginagoa egin jaku bere azken borondatea betetea. Idatzita itxita eukan bera hil ostean bere errautsak zabaldu beharko genduzala mendiko goiko larretan eta zugatz bat landatu beharko genduala bere oroimenak lu-

zaroan iraun eian. Azken mehatxutzat hartu dogu.

Gogoz kontra baina, anaia guztiok gizalegez bete genduan aitaren azken borondatea. Eta orain, goiko larretara igoten dodan bakotxean, hantxe dago zugatza, gero eta handiago, gero eta mehatxugarriago, gero eta aitaren antz handiagoa daukala. Ezin jasan.

Adarrak nahiko sendoak egin diranean, ez dot itxaron bertan neure burua urkatzeko, aitaren borondatetik betiko ihes egiteko.

120 HARMAILA

*Itsasoa agian. Ez. Gizona agian.
Udagoiena da. Jainko eder. Lur
gorria. Harria, gorria. Agian,
odola bezalako arbola. Jainko
eder. Harria eta gizona*

Barausgarria ahoratzen amaitu baino ez neban egin, sirenotsaren durundiak egunak ekarzan lehenengo eztandak iragarri ebazan. Santa Barbarak berak gobernetan eban sabulitak, mukiak iziotu ahala, luzaz isiltzen ez zan leherketaldia osotzen eban. Bata bestearen atzean, eten barik, txikiek hasi eta, trumoien antzera, handienek zarratzen eben goizeroko ikuskizuna. Askotan, harria harrobitik tarratadaka erauztean harrotzen zan hauts gorria ordu horretako eguzki bildurtia ia guztiz ostentzeraino jagiten zan laino erraldoietan. Bestetan legez, gaur be zero gorri zemaitsu hori gainera jausi jaku. Hautsa, harri koxkorrak, baina, gura geunken baino gehiagotan harritzar itzelak be geure otorduen lagun betierekoak do-

guz. Sardina zaharren gosari landerra atzera be lurretan ito jaku.

Bertan gengozan, koadrilakoak, alogereko bihotzildu gosekilak, seiretatik jo eta su barrenari eraginez lehergailuetarako barrenozuloak atontzen. Prestetan amaitu eta artilleroek kargak sartzan dabezan bitartean, nekea uxatuko leuken mokadua hartzen ahalegintzen gara, holan hiru bider egunero. Alperrik oster, artilleroen esku dardaratiak gure hagin narriatu eta erdi jausiak baino arinago doaz. Konturatu orduko eztandek gogoa gorritzen deuskue. Enpresari erosi behar deusguzan sardinen ezkatata ustelakaz batera mea jaten dogu. Meategian behar egin, bizi, hil eta irunsi. Irunsi behar bai, baina, hautsak birikiak itoten deuskuz eta eskuen arrakalai darien odolak ez dau meak idortu deuskun jan petrala samurtzea lortzen. Esku odolduotan, barriz, ez dot daborduko minik sentitzen, ohituta nago. Berorik handienean barrenan behera odola, izerdia, eta meagaz nahastauta kareore burdintsu higuingarria osotzeraino laprasten danean, edota zeru bal-tza goitik behera bota ahalean egoten danean atzamar hozminduen zauriak hotzaren hotzaz gatzetan badira, ez dot ezer sentitzen.

Eskuetako mina aspaldiko gogorapen hutsa baino ez da, artean ume nintzala mea buztin

hondakinetatik bereizteko garbitokietan behar egiten hasi nintzanekoa. Ha ume eta emakumeen beharra zan sasoi haretan. Ama eta bost anaiak be horretan ziharduen. Mea gordina tromeletan desegin ostean, geratzen ziran zati txikarrak eskuz, narrutzen ginduezan harriak harrien kontra gogor igurtziz garbitu behar ziran. Ur lohietan ezari-ezarian buztin lupeztua ezeze, atzazkol odolduak be lagaten genduzan. Barrakoietara bihurtuta, goseak tragetan ginduzanean, eta ez genduanean eskuokin eskeintzen euskuen koilara enkoniagarriari helteza baino beste norarik, orduan ikasten genduan mina ez sentitzen.

Ha izan zan nire lehenengo beharra meategian. Inoiz errespetetan ez zan gitxieneko adina bete eta batera beharrean hasteko txandea heldu jatan. Umezaro laburreko olgetak alde batera itxita, eta nire adineko beste makina bat ume legez, hamaika urte nebazala etxerako diru apurra irabazteari ekin neutsan. Helduak ginan ordurako eta gurean izaten zan beharrian gorria arintzearren lagundu behar genduan. Gu umeok, halanda be, pozarren gengozan. Ordura arte legez, aurrerantzean be ur bissetan ez ginana biziko ondotxo jakin arren, gizon sentitzen ginan. Laster biok biotara ibiliko ginan orbandun meatzari bildurgarri hare-

ekaz, behar egin ostean alkarri harro erakutsiko geuntsazan gure zaurien dominak, domeketan tabernetara, mozkortu arte, pattarra edaten hurreratuko ginan, ugazabek ibilten ebezan emakumeak ezagutuko genduzan, eta, zortea izan ezkerro, halango ugazabaren baten begiko izan ahal izango genduan. Orduan bai biziko ginan ondo; beharbada, tabakoa be emongo euskuen erreteko. Dana dala, horreek guztiak berehala hutsaltzen ziran ume papauen asmoak baino ez ziran. Neuk bai ibilten nebazan arrazoiak behar egiten joateko. Pilatuta gengozan barrakoietatik hur egon baino gurago neban egunabarrean jagi eta besteeke legez sorbaldetaraino besoak garbitokiko basatzen hondoratu. Bardin zan euripean edo eguzki galdatan egon behar bagenduan, bardin eustan hamahiru orduz eten barik, beti ugazaben mehatxupear, egon eta ia ezer ez irabazteak, bardin eustan eskuak betiko porroskatzeak; azken baten, ez zan infernu txikiagoa etxean zain neukana. Gurago neban urrun egon, libreago sentitu ni lakoen artean.

Oraindino gogoan dot meategian hasi nintzan eguna. Amak goizaldeko bostetan, berak egunero egiten eban legez, itzartu eta anaiagaz batera neguari erion euri langarraren azpian bide idoitsuetan zehar abiatu ginan meategi-

rantz. Bide osoan amak ez eutsan nire besotik oratzeari itxi, beharbada oinak jarten ez nekian zidor iluna erakutsi guran. Meategira heltzeko ordu beteko zidor malkartsu horretara, txitean pitean, beste behargin batzuek urteten eben. Urten eta danen agurra jasaten genduan.

—Hara! Mierderoaren beste seme bat meategira!

—Aupa! Mierdero txikerra badoa meategira! Bejondeizula mutil!

—Zer, gaur aitari ez deutzazu lagunduko? Gaur egin dodan kakagaz lan ederra izango zenduan!

Amak gogor tira egiten eustan besotik, baina berba ha barru-barrura, erraietan kiribiltzeraino, gupida barik sartzen jatan.

—Mierderoa! Mierderoa!

Ukabilak estutu eta txistua irunsi behar. Mierderoa, txikerretatik gure alboan igarokeran danen ahotan entzun izan dodan berba iraingarria. Aurrerantzean nire lantokia izango zan lekura heldu eta behingoan amorrua ito neban basa artean. Ez nekian zer neban minduago, bidean espartin trauskilak apurtzean odoletan neroiazan oinen zolak ala gogoia. Banekian, ostera, enparauen begirunea irabazteko hareek legez jokatu beharko nebana. Meategian hastea lehenengo urratsa zan. Horregai-

tik, luzaroan olgeta iraingarriak jasan arren, ez jatan damutu hartu neban erabagia. Edozer, gure aitaren lanbidea hartu edo etxean geratu baino lehen.

La Arboledako barrakoietan bizi ginan. Meategiak ustiatzen ebazan enpresa berari alokatzan geuntsazan. Eraikuntza single eta hauskor horreetan, kutxa erraldoi modukoetan, ahal dan legez pilatzen ginan. Gurean hiru bizimodu baino ez egozan. Handienez senide bako alogereko samalda handia egoan. Horreek, ugazaba zikoitzek poltsikoratzen eben eguneko hogeta bosna errearen truke eukien ohea. Ohea ohol bat baino ez zan, bape koltxoi barrik. Bakotxean meatzari bik egiten eben lo, lan txandaren arabera, bat jagiten zanean bestea oheratzen zan. Gehienetan aldean eroien erropeagaz egiten eben, askotan mela-mela eginda lanean euriak bustita. Bestean, txikerrenean, alarguntsa bat, bere hiru seme-alabak eta sena erabat galduta eukan aitita silikosoan bizi ziran. Bertan eukien ostilamendu bakarra ohol ketuen artean, are miserableago agiri ziran ohantze hezea eta sitsak jandako aulki bat ziran. Gure gelan, bestalde, gurasoak eta nire bost anaiakaz batera bizi nintzan, munduratu ninduen leku berean; urteetan zortzi arima guztira sei metro karratu izango ez eban gela

bakar baten. Han ez zan ez leihorik ez komunik, janaria gelan bertan prestetan genduan. Lapikokoen sundeak, keak, eta sabaietatik zintzilik soketan kordatzen ziran barruko hezetasunak berehala urdinarazoten ebazan jatekoek egongune kalamastra haretako giroa itogarri bilakatzen eben. Meatzariren bat gaixotzen zanean, larri-larria ez bazan, ez zan ospitaleratzen, bertan, danokaz geratzen zan, danok gaixotzeko arriskua handituz; sarri jazoten zen legez. Gabaz gauzak ez ziran samurragoak. Isiltasuna jabe egin behar zan unean, meategian egun ikaragarria igaro ostean gure hazur nekalduai atsedena emoten ahalegintzen ginanean, ia ezinezkoa zan. Agure silikosoaren eztulaldi agonikoez, meatzari gaixo edo zuri-tuen aiene latzek, sein gosetien negar zotinek, surzuloetan barrena erraietaraino kolpatzen zinduzan kiratsak loa zigortzen eben. Gabaren gerizearen lagun, sarri ortozik ninoiala, kanpoaldean ipinten ziran kajoietan sabela hustera joaten nintzanean, batetik-bestetik ziran labe-zomorroak karraska zanpatzeaz batera, beti barrakoiaren osteko bedarretan garbitu behar izaten nebazan oinak, erranak agure silikosoari atzamarrez, ito ez zedin, aterarazten eutsazan karkaxen konketan sartzen nebazanak. Txarriak be nekez biziko ziran sai-zulo espe-

rantzabako haretan. Gure olgeta-lekuak ez ziran hobeak, gainera. Inguruetakoz landak pozu baltz nardagarriak baino ez ziran. Gu ezaxolati. Osin eta erreka ustelen artean eurrez ebilzan izurriteak, nire bost anaiak eroan ebazan astanafarrerria lakoak. Meategian behar egitea ez zan seguru antzean hobeia izango, baina, behinik behin, zenbait orduz, estu besarkatzen ginduzan miseria gorri ha guztia ahazten genduan. Horregaitik poztu nintzan behingoan behar egiten hasi nintzanean, hori guztiori atzean ixteko modua izango zalakoan.

Urteen igaroan, meatzarien etenbako borrokari esker, gauza batzuk aldatu dira, hobetu egin dira; lehen miseria gorria zana orain miseria baino ez da. Aldatu ez dana da, goiz honetan legez, leherketak amaitu ostean, Trianoko mendiotan egoten dan handik hortikorako zarra-marra. Uzta bila doazen laborariak bailiran, ehunka beharginek pikotxaz eta palaz erasoten deustie emakume izeneko sabel emonkor honi. Barrenoek erauzi daben mea gorria lehenengo, ia eskuz, otzaretan batu eta gero garbitokietaraino teleferikoetan edo zamariak izerditan, arnasestuka, bultzetan dabezan bagonetetan garraiatzen da. Holan eten barik egunero, urte osoan, Eguzkiaren argiak edo neguko uroldeek baimentzen daben artean.

Bilbotik itsasoz Ingalaterrarako bidea hartuko dauen mea hori, horraitino, betidanik lar garesti ordaindu izan dogu meatzariok, lehen legez orain be. Ez da gitxi nagusiek behartzen gaituen bizimodu latz honi aurre egitea, baina, meategiak be kobrau ohi dauz zergak meatzarien bizitan. Bagoneta bat jausi eta peoia zanzpatzen dau, barrenok lehertuarazoten dabez buruak; gure auzoak norarik ez daben elbarri, alargunsa eta umezurtzez beteta dagoz. Bat-batean sirenotsaren garrasia, koadrila bat behar da bizkor lur azpian bagoneta batek zauritutako peoia aterateko. Gitxitan eskoratu izan diran galerietara kaiolan jatsi behar da. Urradura latzetatik jasten gara, narrua erazten daben urtenenez beteta, eta batez be, sabaitik jausten dan ur glaziarrak lurrean pozuak egiten dauz eta izoztu egiten dauz lepo abailduak eta hanka ubelduak. Galmendi ilun honetan topau behar dogu istripua izan dauen gaixoa. Azkenean, bere lankideen oihu eta argi ahuleko linternai jarraituz bertan aurkitu dogu. Bagoneta biren artean dago aratinik errailetan etxunda, ez dau zirkinik egiten, ondoan begira dagozan lankideek bez, bakarrik ulertzen ez dogun zer edo zer esaten ahalegintzen da aho tartea mobiduz. Putxetako Venanzio da, galgeroa lanbidez. Bagoien artean galga lanetan zihardua-

la, batek zanpatu eta garria puskatu deutso. Arin, bertatik aterateko, ahal zan moduan, lau lagunen sorbaldetara jaso dogu, koadrilako enparauko lau lankideek txandan hartuko deuskue bidean, kanporako bide malkorra ahalik arinen egiteko. Sorbaldara jaso dodanean, une batez, bere esku hotzaz aurpegia nahi barik ikutu deust. Esku hotz horreen fereka sentitzean, berehala nire aita zanaren gogorapena etorri jat gogora. Uste neban erabat eta betiko ahaztuta nebala txikerretako sentipen hori. Baina ez, ihes egiten neutsen esku hareek ostera be indarrez, gogor astinduz, bihurtu dira.

Ez dot ondo gogoratzen, beharbada udabarri aldera izango zan, baleiteke udea izatea, baina, egun hareetan inoizkorik mea gehien ateraten zan. Horregaitik, esku biren jabe zan guztia bialdu eben meategietan behar egiten. Istripuak be inoizkorik sarrien jazoten ziran. Danok bizi ginan ardura horregaz, baldintza hareetan edonori jazo lekikion, hurrengoan geu ez izateaz aparte, ezin geinkean beste ezer egin. Ni, ama eta artean bizi ziran bost anaiakaz batera hasia nintzan garbitokietan. Behin, bertan nengoala, egun haretako beharra burutzeko arratsaldean hirugarren leherketaldia falta zanean, halako baten, pozuan istripua izan zalako oihuak zabaldu ziran. Aita egun horretan le-

henengo aldiz joana zan pozu berean, hain zuzen. Berehala aitari zerbait jazo jakolako bihozkaidea izan neban. Ez neban dudarik egin. Danak harritura itxirik, garbitokiko lana bertan behera lagata itoka jo neban istripua izan zan lekura. Bidera beharrera itzuli nendin urten eustan ugazabari ahal zan moduan ihes egin neutsan. Ez nintzan gelditu. Amak eta nire bost anaiek, basatan ainguratuta, aurpegiaren marrazten eben artega-keinua ikusteko baino ez neban burua jiratu. Oztopo nebazan mea hondakinen mendoiak, zeharkatzerik izango ez nebazan harresi erraldoiak lakoak, oin eta eskuez igoten nebazan. Askotan estropezuka, bilin-bolonka aldapetan behera jausi eta atzera be indar handiagoaz ahalegindu behar. Bidean bat egin neban zauritua jasotera joian koadrileagaz. Oinen zolak gorritzen dabezan eskilaretatik jatsi ginan pozura. Neu lehenengo, hareekandik tirtetan neban bizkorrago joan geintezan. Arineketan barruratu ginan galerietan. Horretan, gorputz karkail huts bat sorbaldetan ekarren lankide taldea topau genduan. Aita zan. Tamalez, bihozkaideak ez ninduan engainau. Bagoneta batek zanpatu eban. Konorte barik, zurbil, ikusi nebaneko, aiko-maikotan ibili barik, ia zakarki, besoari heldu eta nire lepo gainetik pasa neban. Nigaz etozan

hiru lankidek soinadar bana hartuta antzera egin eben. Haxe zan gizon haregandik hurbilen egon nintzan aldia. Esku hotzakin nahi barrik aurpegia ikutu eustan, beraren laztanai beti ihes egiten neutsen mierderoaren eskuak. Egundo jariatzeari itxi ez eutsan sunda sarkorrak barru-barruan atzera be jipoitu ninduan, gizon haren izate osoa, biziengordetan dodan gomutapena, esku lohi horreen baitan izan baltz legez.

Galiziar igar honek, halabeharrak emaztea eta besoetako hiru ume ekartzala La Arboledara bota ebanean, baekarren aurpegiko tximurren tolesduretara zizelatur bizitza latz baten marrazkia. Mesfidati, uzkur, kikil, begiradea inora galtzen eban berba bako gizon ha meategietan behar egiteko gauzaeztantzat hartu eben. Ustez bere neurrikoa zan lanbide bakarra emon eutsien, mierderoarena. Zingira ustel haretan asteen birritan barrakoen kanpoaldeko kakategiak ziran kajoiak kendu eta errekan ikuzten ebazan. Ha zan herriko umeek harrika ibiltzen eben mierderoa, danen koplaboru eta tabernako jolasa, bertan hil ezker, negar egingo ez eutsien morroi baztertua. Anaiarik gazteena eta biok mundura jaio ginanean, amak ez eutsan inoiz gu besoetan hartzen ixten. Meatzari batek Peñas Negraseko ezpelaz egindako

sehaskara urrunetik, mutu, begiratzen eban, baina besoan hartu, inoiz bez. Poliki, auzoko umeek harrikatuta aita zer genduan ezagutuz joan ginan. Lapiko beretik danok eskuz jaten genduanean, ez zan mea, enparauko meatzari-ek lez, atzazkolen zirrikituetan mahaira eka-rrena, gorria izan arren. Eta nik beti ihes egi-ten neutsen haren eskuai, haren laztanai.

Ha zan egun haretan pozutik ahaleginetan atera nahi neban gizona. Ito arren, ez neutsen besteai txanda egiten ixten, neuk egin nahi neban ospitalerainoko bide osoa aita lepoan neroiala. Zenbat aldiz, domeketan, ez nintzan begiak ubelduta etxeratu ni, batzuetan bai eta besteetan benetan mierderoaren semea ez ei nintzala auzoko lagunen artean bala-bala ebi-lelako. Amari, gaztea zala, nire aita lako gizon batentzat ederregi eritxen, danen ahotan ebilen ni Galdameseko ugazaba baten semea nintza-la. Amak ez eustan egundo ezer esan baina, ugazabek euren amoranteen izenak ipini ohi deutesiez meategiai, horregaitik dago hainbeste emakume izeneko meategi. Eta Galdamesen bada Adelaida izeneko bat. Egunduan horetan hori guztia gogoan izan arren, nik ez neban duda egiten, aita handik atera nahi neban lehenbai-lehen. Azalera urten baizen laster zain genduan zaurituen guriaren gainean ipini eta Ga-

Ilartako ospitalera abiatu ginan txistu bizian. Meategitik ia ordu luze bateko osterea. Ez nekian bizirik helduko zanentz, arnasa ahula ozta antzematen zan eta bidearen malkorrek gure bidea oztopatzeaz gain zaurituaren egoera larritu baino ez eben egiten. Bide osoan alboan oinez ninoiala ez nintxakon aldamenetik joan, esku batetik heltzen ausartu nintzan. Ospitalerako bidean behin batez irribarre egin eustala uste izan neban. Gitxitan ikusia neban, beharbada inoiz ez, barre egiten. Inoiz jaiegun baten Portugaleteko kaietan paseoa egiten joaten baginan, eta errekeaz bestaldeko auzo aberatsak ikusirik nondik gentozan unetxo batez ahazten genduanean, orduan be ez eban inoiz irriñorik egiten bizitzak mesfidati eta itzal bilakatutako galiziar harek. Azkenez, Buenos Aireseko muinoan zetzan ospitalerako eskilaren aurrera heldu ginan, ateraino behar ziran ehun eta hogeï harmaila suntsitzaileen aurrera. Lar, hil zorian joiazan beharginentzat. Amaibako eskilara honetatik lankideen sorbaldetan igon behar eben zauritu guztiek.

Aita, beste asko legez, ahalegindu zan, baina alperrik, ez eban lortu. Eskilarotan, gitxi falta zala nire besoetara heldu zan hiltera. Gure ahalegin guztiak alperrikoak izan ziran. Aita, ostera, meatzari legez hil zan, egun bakar

batez, baina meatzari. Amaren bila burumakur itzuli nintzanean, etxean, doluz jantzita topau neban. Zauritua nor zan ez eutsan inork esan, baina behar bez. Venanzio galgeroa, barriz, neke handiz pozutik atera eta Bilboko ospitalera eroango dauen anbulantzian sartu dogu. Beharbada, bizitza osorako elbarri geratuko da, baina ez dau bizia galduko. Harmailetan hil zan nire aitak ez eban aukera hori izan.

ANDERRENA

Anderrek olerkari izan nahi dau, horregaitik etorri da uriko alde tristeenera. Bertan ganbara bat alokatu dau urigintza planaz kanpo dagoan etxe baten.

Ekin eta ekin ahalegindu arren, ez dau folio bat bera idaztea be lortu. Etsita dago, eta edozer emongo leuke idazle izatearen truke. Deabruari berari arimea salduko leuskio.

Halako baten, Deabru gorria azaldu jako.

—Hartu nire arimea eta egin naizu idazle!
—erregutu deutso.

—Ez, konbentzidu zaitetz, ez dozu balio.

ZAPATA BALTZAK

*Maitasunik egon ez arren,
jelosiek irauten dabe*

Urrundik hurbilera etorritako zaratek blaus-
ta eroan ninduen amets gaiztoen mundu irrea-
letik bizitza irrealago batera. Hasikeran, gor-
putzaren zirrikituetan laban sartzen zan nahas-
te bigunak, luzaro barik, burdinsareen
kontrako golpe ikaragarriak izaten amaitu
eban. Belarrien hondoko kakazia lehertu era-
gin eta zorabiatzeraino durduzaten ninduen
oihuen artean, neure burua, ikusi baino, eskila-
retan behera bultzaka sentidu neban. Leize
ilun hareri horma lizunai erien hezetasunak
umea onartu nahi ez eban umetoki itxurea
emoten eutsan. Erditze txarraren antzera, es-
tropezuka, noragabetu nintzan argiaren lehen
errainuetara. Halanda be, ez neban leizeaz bes-
taldean goxo hartuko ninduan inor zain. Ume-
ek ez legez, ez neban katigu nindukan esturea
askatzen. Gogoia izan arren, ez nintzan nega-
rretan hasteko gauza. Bakarrik harlauza izoz-
tuek patioaren bazter baten hartuko eben nire

gau osoko urduritasuna. Odol lorratz batek ihes egin eustan ahotik, burdinazko atetzarren tarte zabalduetik, jagolearen hankapetik.

Lorratz iheskor horretatik begirada lausotua jasoteaz batera harresitik kanpora ikusten ziran teilapeetan bizi zan jenteaz gogoratu nintzan, ordu horretako kafe beroaz. Orduantxe hasi nintzan benetan nire egoera barriaz jabetzen. Lanaz be gogoratu nintzan, mahai gainean zuzentzeka itxitako ariketez, Maryri kontserjerian hartu beharko neutsazan mezuez. Aldikada baten ez neban ikusiko.

Dana nahaspilatzen jatan buruan, baina, hain urrun ikusten neban bezperakoa, ze gogotan pilatzen jatazan gogorapenok berehala hutsaltzen nebazan. Une horretan norbaiten eskutitza nire bizitzaz galdezka jaso izan baneu, orrialde zuria bialduko neutsan.

Alabaina, ez neban denpora gehiago behar izan neure nahasmendutik urteteko. Laster dastatu nebazan jagole baten laztanak, bestea-kaz batera lerrokatu nendin. Makilakaddek, ez eben bete espero zan helburua, ostera. Lerroan zutundurik parau barik, patioa mugatzen eban alanbrezko hesi baten oinpera bota ninduen barriro. Arin zutundu nendin egin ebezan aha-lerinak ez ziran alperrikoak izan. Eskerrak emon beharko neutsezan hain abegitsuak iza-

teagaitik. Ni neu, indarga egon arren, ondotxo altzau neintekian, bada, nire asmoa hasikera-
-hasikeratik ez zan ezelan be goizak zurututako zelaia musukatzea, hainbat gitxiago, antza, indarrean egoan agindurik haustea. Zelaiko odoletik zokoratzekoan, patioa bitan bereizten eban alanbre horren bestaldean begiratzen eustien zapata baltzak, garbitu barriak, begietsi nebazan. Ez neban ikusi nor zan zapaten jabea, ni lako beste bat beharbada, pentsau neban zafladatik zafladara itxitako tarte laburrean. Azkenez, ezohiko irrikaz begira neukazan kideek nahi barik eragindako luzamentua parkatu behar izan eustien. Holan, danok, zazpiko lerro artez-artezetan tente parauta, zentroko zuzendariaren berbak jaso ahal izan genduzan.

Berbok, jaun zuzen eta prestu bati jagokoizanak, zentzudunak eta aitakor askoak, aditzen nebazan artean, gogoia eskola sasoiraino joan jatan, ikaslea nintzan garaira. Erabat ahaztuta neukan zer zan hasibarria izatea, zer torpe emoten genduzan urratsak arrotz jakun edozein lekutan eta zer galetsi sentitzen ginan halangoetan. Apurka-apurka, larritasun horretatik urteten genduanean, ez zan bidea erakusten euskuelako, ezpada, jausi eta atzera be jagitearen porasuz lortzen genduan eskarmentuari esker.

Holan sentitzen nintzan neure bizitzaren gosaririk loriosenaren aurrean, nora ezean eta nahi, eskuek nekez eusten eutsien hondarrez betetako kafean ito guran. Damu neban une horretan neure ikasleai ezinegon hori sortuara-zoko neutsela pentsau izana. Ziegarantz, albotik igarokeran, norbaitek zigarreta bat emon eustala uste dot. Ez neban erreten, jakin be ez nekian, baina konturatu barik ezpaneratu neban golpe batez jagoleak kendu eustan zigarreta ha. Barruan erretea galarazota ei egoan. Berehala ohartuarazo eustien. Behin koltxoi zikinean etxunda, ha guztia amets gaiztoa baino ez zala biziro deseatu neban. Oharkabean, baina, etxe haretako beste apopilo bat nintzan, eta gainera, gura neban baino arinago ikasten neban.

Biharamunean, luzaroan izango zan erritual bera errepikatu zan, oraingoan laztan gitxiagogaz. Pare bat egun neroian bertan eta artean ez neban abagunerik izan inguratzen ninduan jenteari erreparetako. Hasikerakoa gainditu ahala, azken baten, bertan egoten ikastea zan ia ardurakarra, horregaitik, benetako premina bilakatu jatan burua zertan distraitu. Ez nintzan gauza, artean behintzat, egoera horretaraino zelan heldu nintzan hausnarrean hasteko, libururen bat irakurri neikean, baina ez neukan bat

bera be. Beraz, beste presoakaz hartuemonak izateak lagunduko eustala pentsau neban. Argi egoan, barriz, aldamenean ebilen jente-modu ha langoa ez nintzana. Hareek ziutateko auzo txiroetako zarpailak ziran. Gaizkin arrunten artean itxura txarra emoten neban, prestu eta kultuegia nire ustezko delituaz errezeloz ez somatzeko. Arrunta zan oso etorri barrioi galdeztea zerk ekarri ginduzan hara. Handiuste txikien norgehiagokari, lehiaketa faltsua neritxan, baina nor nor zan adierazoteko bai balio eban. Holan ezarriko ziran barne-arauak zulo haretan, eta ni, zer gerta be, hartuemon handirik izan ez arren, berbak kontuz neurtzen aha legintzen nintzan. Dana dala, uzkur eta herabe hasikeran, norbaitegana hurbildu behar neban. Horretarako, patiora ateraten ginduezan ordu laburretan, presoen taldeetara hurreratzen nintzan, hutsaltasunik handienak entzuteko baino ez bazan be. Guztietan ez zinduezan onartzen, baina beti egoan zugazko detaileren bat eukana, erreten ez nekizan zigarroak emoten eustazana esaterako. Aitzitik, talde horreetan guztietan danek eben ahotan, ahopeka egia esan, alanbrezko hesiaren bestaldeko apopiloa, gu sartzen ginanean, bakarrik ateraten ebena.

Ordura arte ez neutsan erreparau. Besteokandik guztiz bakartuta eukien, inogazko har-

tuemona ezindurik, beren-beregikoa bide zan eraikuntza zatarraren beste alde baten. Harritu ninduan, ikusten genduan guztietan gainontzeko presoek errespetu handiz begiratzen eutseta. Morroi garrantzitsua zala begitandu jatan. Dudarik ez egoan.

Ez neban, ostera, luzaro itxaron behar izan nor zan jakiteko. Preso hori urkamendirako egoan. Hori beste presoai entzukuran hunkitu nintzan. Besteen aldean, harek be ez eban emoten gaizkin itxurea ebanik. Ondo jantzita agertzen zan, neguko beroki lodi eta ardilanazko txano baltzagaz. Ez eroian presoen ohiko erropea. Egunero, patioa hutsitzen zanean, kaiola antzeko haretan egon ohi zan. Ibilbide-txu biribiletan urrats konpasatu txikiak egiten ebazan, beti isilean, burumakur eta norabide berean, kronometro baten segundoak banan-banan zenbatu nahi baleuz lez. Eskilaretan gora joateko prest gengozanean, unetxo batez gure alderantz adi geratzen zan. Gero, bakarrik segitzen eban bere ibilbidean.

Autortu behar dot hil egingo ebela jakin nebanetik gizon ha obsesino bihurtu jatala. Ezin neban egun bakar bat igaro beragan pentsau edota ikusten genduan apurretan zirrara keinu batez begira geratu barik. Itxuraz, baeukan errubakotasun trazea eta modu horretan hilo-

tzitu behar izateak tristetzen ninduan. Oilo azala ipinten eustan. Zer egingo ete neban, egoera horretan egon izan banintz?

Poliki, baina patioko orduak nabarmen murrizten jakozala ohartu ginan. Beste presoek ez ebezan pribilegioak hartuak ebazala jakin genduan. Niri, barriz, beragazko jakingurea, mi-resmenagaz batera handitzen jatan. Sinesgatxa zirudian portaera harek, itzaltsua beharbada, baina aldi berean nasaia, ardurabako samarra, kontu ha guztia egokituko ez balitxako lez. Ez eban, azalez behinik behin, ezelango atsekabe edo bildurrik adierazoten. Uste izana neban halangoetan presoek egindakoaz damutu eta etsipen biziz erregutzen ebela errukia, baina haren patxadeak harritu egiten ninduan benetan. Ordu hondarrak baino ez jakozan gelditzen.

Horretan, ziegaren bakartadetik, Maryri ostera be idazten hasia nintzan. Epaiketa ezkerro ez neban ikusi, ez neukan haren barririk. Gutunak onartuko ebazanik be ez nekian. Azken baten, ez neukan bape argi nork nori parkatu beharko eutsan. Eskutiztotan, berak salatu baino lehen egiten neban lez, ikasle haregaz izandakoak ez ebalala gure artekoagaz zerikusirik azaltzen ahalegintzen nintzan, behin eta barriro ahalegindu be. Hondino maite nebala iku-

siarazo gura neutsan. Gertatu ziranak gertatuta prest nindukan dan-dana ahaztu eta lehengora bihurtzeko, horretarako urguilua iruntsi behar baneban be.

Hasikerako gutun horreetan be ia beti Oskarren gaineko –hori ebalatzen jakin neban– aitamen txikiren bat isurtzen jatan. Presoen taldeetan ahoz aho, lexibarako diran atsoen erreka esamesen antzera ebilzan haren gaineko zertzeladak batu nebazan. Tantaka. Emazte ederra eukala eta etorkinak batzen ziran erreka ondoko auzoan tratoria baten sukaldari lez lan egiten ebalatzen jakin neban holan. Mary eta bion arteko arbitro bihurtu neban, ia konturatu barik. Heriotzara eroango eban zana-zalako delitua egiteagaitik, errubakotasuna autortu eta beragaz errukitzeko ahalmena baneban, geurea errazago konpondu behar genduan. Sinistuta nengoan. Holantxe esaten neutsan Maryri. Gurea huskeria zan. Nigaz haserratzera onartu neikean, baina Maryren erantzunari lar neritxan. Beste modu baten konpondu geinkean, bioi kalterik egin barik, gure familiak honetan nahastu barik. Ez egoan zertan. Maryk, osteratzen, ez eutsen nire gutunari erantzuten.

Eta, Oskar patiora jatsi ez zan eguna be heldu zan. Egingo neuke egun horretan barruko guztiek borroaren kalamua saman sentidu

ebela. Oskarren heriotzeak bizi eragin eustan. Egun horretan bertan jota nentzan ziegako ohantzean, noiz eta Maryk eskolako ikasle bat gaz kontserjeriaren osteko gelan, biok be sarrri konpontzen ginan leku berean, harrapatuta amorrus salatu ninduanean baizen jota.

Holan igaro nituan hainbat egun, sukarrak hartuta. Nahigabe horretan, betazal astunak bildu orduko, Mary eta Oskarren irudiak nahasten jatazan, tropelka. Zenbat bider ez neban berregin ametsen lanbroetan zoritxarreko iluntze haretan kontserjerian jazo zana. Maryren oihuak ez nebazan itoten, neskatoaren desio oihuak nire esku ahurrez itotea lortzen ez neban lez. Sarrri, ez zan Mary kontserjeriako gelara sartzen zana. Oskar zan gelako ispilutik agertzen zana, nire aurkako begirada arbuia garriaz. Basilisko orrien usaina igarten neutsan eta amantalaren odol arrastoek Kalabriako giaseme hari erion gorrotoagaz bat egiten eben.

Bardin-bardintsu irudiztatu neban Oskarren emazte ederraren leihopera joaten zan eskekoaren odola. Hiru sastakadaz auzoaren txirotasunak baltzitutako hormak argitu ebazan bat-batean. Oskarrek ezin izan eutsen aurre egin auzoko mihinluzeai, emaztea kantu ederrak egiten eutsazan eskekoagaz konpontzen zalako pozoia zabaltzen eben berberak. Spagetti,

ravioli eta fetuzziniak itsasoratzen ziran kale kantoi haretan Oskarrek esku hutsez erauzi eutsan bihotza. Ez zan nahikoa afruntua ordaintzeko eta bihotza norena zan argi geratu zedin burua moztu eta kutxa baten gorde eban. Tratoriako sutean Siziliako mendietako bedarrik usaintsuenakaz su txikian, astiro, ondu eban bihotza pazientzia handiz. Etxeko mahaian jaten emon eutsan beren-beregi emazteari prestatutako plater hori. Oskarrek, zer jan eban galdetu eutsanean, jateko goxo-goxoa zala baino ez eban erantzuten asmau emazte harrituak. Oskarrek, orduan, jan ebana kantariaren bihotza zala bota eutsan, eta sinistu eion ezkutuan eukan kutxa zabaldu eutsan. Emaztea zerraldo jausi zan. Konortera bihurtu zanean, barriz, ezpanak milikatuz, hain jateko goxo behin be ez ebala jan eta aurrerantzean halangorik nekez dastatu eikeala erantzun eutsan senarrari. Oskarrek, ha entzunda, zirt-zart eten gura izan eban emaztearen laidoa, baina honek senarraren esku mehatxagarriai ihes eginda, balkoira jo eta bere burua jausten itxi eban. Polizia heldu zanean, Oskarrek emaztearen gorpua eukan besoen artean kulunkan, kalearen erdian.

Harrigarriro, Oskarrek espetxeko presoan artean banatu ebazan eukazan ondasun apu-

rrak. Niri kutxa baten etorri ziran zapata baltzak suertau jatazan. Orain, zigorra beteta, espexetik urten dodanean, zapata baltzak jantzi-ta Maryren bila noa, parkamena eskatzen.

JUAN ETA MIGELENA

Juan eta Migel kamioizaleak dira, kanpokoak. Jubilazinoaren atarian dagoz.

Aspaldi-aspaldian ez etozan uri honetara eta lehengo tabernetara joateko gogoia egin jake.

Goiko kalean egoan *Paradise Bar* gogoan dabe, *Las troyanas* ondoan, hango nesken gogorapen onak gordetan dabez, gorde be.

Ate aurrera heltzean alkarri begiratu deusie:

—Hau da paradisia!

—Hau da tabernea!

TITANIC

Mariari jainkoren batek zerutik bota eutsazan pintzak erropea eskegi eian, baina bat itzuri jakon izaren artean eta musika bandearen zuzendaria jo eban. Holan hasi zan dana. Sorbaldan jaso eban golpetxo nahikoa izan zan beroak lozorroan eusten eutsan makilatxo airean batetik bestera dantzan hasteko. Bat-batean jaia lehertu zan Mariaren izaretan, udako eguzki gordinaren dirdiran. Musika bandeak eten barik joten eban.

Eguna bero-beroa izan arren, herritar zein kanpotarrik asko batu ziran idi-probak ikusteko herriko jaietako egun nagusian. Eguerdiko idi-probek eta arratsaldeko pelota partidek beteten ebezan jaiak. Batzuk hamabietako mezearen ostetik eta beste batzuk zuzenean tabernatik hurbildu ziran frontoi ondoko probalekura, Karmeleren dendatxoaren aurrean dagoan horretara. Baserritar zaharretan okasinorako barriak ziran alkandora zuriak ikusten ziran eurrez, ia bideo-kamarak hainbeste. Umeeek olgetan ebilzan gurasoen hanken artetik, nagusien oihuen axola barik, eta bazter baten begi zabal-zabaleko nes-

katxi batek mailuki izozki handia miazketan eban geldiro. Musika bandeak eten barik joten eban eta bere notak airean nahasten ziran txurroen lurrun gozoagaz. Hain zan dana erreza. Umeek jolasteari itxi eutsien, idiak kamioietatik jasten hasi ziranean. Danak hurreratu ziran barandetara burua apainduta eta koadro gorridun burusiaz estalita etozan animaliak miresten. Txikienek, aitek besoetan hartuta, aho zabalik eta bildurrez jarraitzen eben idi eder eta erraldoien erakustaldi patxadatsua plazan zehar.

Han egoan Titanic parea, inoizko idi-buztarri-rik indartsuena, eta bere akulari koadrila, eta gizon ondraduen planteaz hareen lepotik etekin galantak aterateko asmoz etorritako apustulari profesionalak be bai. Gizonak dirua lizun laz-tantzen eben patrika barrenetan, hilabeteko sol-datea edo erretretako pentsino argala etxetik agertuko ez zala inori esan barik.

—Harri handiagaz berrogeta hamar untze egin baietz!

—Bi mila ogerleko Agirrereren buztarriaren alde!

—Agirre! Horreek idiok nekatuta datoz, zure poltsikoa baizen makal dagoz, nondik ekarri dozuz?

—Ixo, ixo! Sartu eizu mihina eperdiko zuloan! Zu! Egin apustu on bat! Nire alde, jakina.

—Zu, gero... tabernan.

—Agirre! Ondo berotu dozuz idion potroak?

—Zuri bai berotuko deutsut musturra! Entzun deustazu?

—Agirre! Zureak bai luzeak!

—Agirre!

Itzainak mesprezu keinua opari egin eutsen bertara batu ziran guztiai eta publikoaren oihuai entzungor planta eginez bere akulariakana hurreratu zan aringa.

—Fernando, mekauendios! Prestau eizuz behingoan! Badakizu zer egin behar dozun.

Agirrerren buztarriari lehenengo txandea egokitu jakon behin idiak pisatuta. Mila eta berrehun kiloko harritzarra galtzadearen mutur baten parau eben, etxe zahar eder bi eraitsi barri dabezan aldean, zubiko gurutzearen eta monolitoaren parean. Urigintza zinegotziaren ustez herria modernizatze bidean sartuta egoan bete-betean, etxe bloke eta adosatuen artean ez egoan lekurik iraganeko anakronietarako. Laster probalekua eta 1929an altzau zan plazako frontoi zaharra izango ziran iraganaren oroigarri bakarrak. Bakarrak eta alperrekoak. Agirrek txarto eretxi eutsan bere buztarriak gainkarga ez eroateari, epailek aurrekoetan baino pisu gitxiago emon eutsielako baskulan; halanda be, egundoko era-

kustaldia egiten etorren, danen susmo txarrak isilduarazoten.

—Fernando, mekauendios!

Fernandok ez eban altzetako be imintziorik egin, bakarrik behatz-puntaz zapaldu eban zigarroaren susterra eta ahotik jario jakon azken ke bufadea neska gazteak barriketan egozan txokora jaurti eban lizun. Alberto eta Kosme eukazan alboan, isil-isilik arbolapean, gerizpean jesarrita, gogoa eta begiradea urrunean galduta.

—Fernando, lahostia!

Esan eta erroi batek zeharkatu eban plazea alderik alde. Albertok eta Kosmek une batez jarraitu eutsen hegaziaren hegalaldiari, gero, atzera be euren baitara biltzeko. Fernando azkenez zutundu zan eta izerditan egozan idiaknantz abiatu zan desgogoz. Uretan bustitako zapi batez sikatu ebazan banan-banan, leun, idien azal gorriak, ume txiki baten musua izan balitz lez. Ordurako bero lar egoan eta idi-buztarria, hasi baino lehen, arnasestu bizian egoan, ito beharrean. Beste zapi batez begiak lanbrotuko jakezan alkoholaz igurtzi ebazan musturrak. Ikusi, ez eban inortxok be ikusi, betiko lez, baina seinalea zan, seinalea Alberto eta Kosme buztarri eta akuluen eskutik agertu eitezan.

Txaloen artean parau ziran galtzadan, Titanic I.a eta II.a harriari tiraka, Agirre itaurlari, Fernando atzean beste akulu bategaz, Kosme harria gobernetan eta Alberto burruntzaliari oratuta pekorotza batzeko. Epaileaz bat, Fernandok indarrez apurtu eban akulua idien bizkarrean harritzarrari saka egin eioen. Idien minnez jantzitako zaflada harek oihartzun egin eban frontoiko hormetan eta handik kilometro askotara be. Ume bati bat-batean irribarrea ezabatu jakon betiko eta koñaka lotsaren lotsaz botiletan ezkutatu zan abuztu haretan inorri azalpenik emon barik. Baina, musika bandetak eten barik jotzen eban, ozen eta burrunbatsu. Hain zan dana erreza.

Zaflada gehiago beharrezko izango ziran, idi eta gizonen segizio harek zirkin egiteko, ez itoteko idien bat-bateko beheranzko itsaso haretan, eta izerdiak jada lehenengo lerroko ikusleak zipriztindu arren, plazea orroa hutsa zan.

—Sakatu Agirre! Sakatu gogor!

Ukabil zarratuak txokorraren parera altzetan ziran mehatxagarri hari bihotz emoteagaitik.

—Aurrera Agirre! Egin gogor!

Eta Agirreri begiak gorritzen jakozan. Gero eta amorru handiagoaz tira egiten eutsen, eta koadrileari, goroldioan eta zirinean batera irrizatzen ziran koadrila eta idiai eurai.

—Fernando, kaguendios! Sartu akulua!

Eta Fernandok akuluaz ziztatzen eutsen izter barrenetan, orduan txistu egiten eutsien, unekada batez behintzat, ze odol turrustadak berehala baretzen ebazan, eta lehengo haserrealdia laster zan barriro biba eta aupa. Bazter batean neskatxi batek mailuki izozki handia miazketan jarraitzen eban. Harriak egoskorregiak ziran gizonak gobernau eiezan, holan esango eban Eloisak, eta harri harek alboetara baino ez eban egiten, gitxitan artezean idien atzetik. Koadrilako gizonak holantxe joaten ziran, alboetara, mozkortuta jausiko balira lez, harria eta gogoa nekez zuzenduz. Egun haretan bakotxaren gogoa urrun egoan eta. Oso urrun.

—Agirre! Agirre!

Izen harek burrunba egiten eutsan burmuintean, barru-barrua kiskaltzen eutsan, txikitan aitak garondoan egiten eutsazan atximurdurak baizen mingarri. Horregaitik lehiatzen zan ezabatzen, zigorkada basatien oihartzunagaz, baina ezin, emaztearen oihuak ezabatzea lortzen ez eban moduan.

Agirrek jatorrarena egiten baekian, ondo jakin be, batzuetan behintzat. Sasoi baten dantzalekuko eskenatoki gainean ez eban parerik izan. Onena zan. Onena izan zan gitarra elektrikoa joten, gitarra imintzioak egiten, jakina.

AC/DC taldearen kantak jira-diskoan ipini eta bertan azaltzen zan play-backik zoroenak egi- teko prest. Inork ez lez joten eban gitarra ima- jinarioa, benetako notak buruz ekizan, eta atzamarrak zehatz mugitzen ebazan infinitu- raino luzatzen zan airezko gitarrea haren mas- tan zehar, ez beste hortera batzuek egiten eben lez. Holan irabazi ebazan txapelketa asko eta holan ezagutu ebazan Fernando eta emaztea izango zana. Ha berehala liluratu zan hainbes- te zorakeria egiten eban mutilagaz, haren ber- bakeriagaz. Fernandorena bestelakoa izan zan. Ordurako Agirre apustu kontuetan ebilen buru-belarri, bazterrak nahasten. Behin baten bati ordaindu behar izan eutsan mesedea. Gri- pe izurrite batek urian emotekoa zan *Aida* ope- rako egiptoar soldadu guztiak tragau ebazan, Agirre berehala agertu zan prest soldadu hare- ek guztiak ordeztatzeko. Ziztu bizian ekin eu- tsan tropa barria antolatzeari. Lagunen artean aurkituko ebazan. Artean Agirre lausengariak jentea konbentzitzeko gaitasuna gordetan eban eta holan dantzalekuko zerbitzaria zan Fernan- do lortu eban konbentzitzea *Aida* operan egip- toar soldadurena egin eian. Paper erreza. Ha- landa be, Fernandok ez eban egundo baietzik esango istripu madarikatu ha izan ez baleu, hilda egoala pentsauarazo baino, emazteagan-

dik banatu zan ezkerro bakartade gordina benetan zer zan erakutsi eutsan istripu madarikatua. Orduan edozeri esango eutsan baietz. Ahalik eta ondoen egiten ahalegindu zan, baina Fernando, urduritasunak eraginda, eskenatoki gainean bazkariko makarroiak goitika hasi zanean, galdezka hasi ziran ea nor ekarri eban arotzez, argiketariz, iturginez eta zerbitzariz osotutako armada ha. Geroztikoa ez zan hobea izan, Agirrek lortu eban Fernando endredu guztietan sartzea; aldi berean, apustuen zorrak handitu ahala emaztearen begi ondoko ubeldurak be handituz joiazan. Harrezkero ez eutsan bape graziarik egiten gitarra-jole faltsu harek. Citroën automobilak onenak zirala maiz oihu egiten eutsan Agirrek Fernandori, eta postura egingo ebalai izango zala igoteko Gorbeiaiko tontorreraino Citroën utilitario baten. Agirrek ez eban apustua irabazi, autoa berehala hondatu eban Arlobiko zubia igarota. Emazteak nahikoa zala delibero eban eta Citroën kontzesionarioko morroiagaz alde egin eban betiko, ez senarraren ohiko laztanak jaso baino lehen.

—Fernando, idi-buztarria erosiko dogu! Dirutza ederra irabaziko dogu.

—Zoratuta zagoz, zuk zer dakizu ba idiez?

—Zer ardura deutsu ba? Zuk ekarri eizuz beste morroi bi; ikusiko dozu, aberastuko gara.

Eta bere izena hasi zan burrunba egiten plaza guztietan,

—Agirre! Agirre!

—Kauendios! Neu naz Agirre, eta zer?

Gero eta bero handiagoa egoan. Eguzkiak goi-goian ziharduan gogotik, handik bertatik plazan egozan guztiak hobeto zigortu ahal izateko; kiskaltzeko inor konturatu orduko. Musika bandeak eten barik joten eban, baina jentea ordurako mutu egoan. Agirrek aginduak ozenki emoten ebazan, atzerantz begiratu barik. Muturrean bira egitean bakarrik topo egiten eban atzetik etorkon Fernandoren begirada galduagaz.

—Lahostia! Esnatu hadi!

Eta Fernando xaxatuta, aireari sartzen eutsazan akuluaren eztenkadak, aireari eta idien izterrai, orduan animalia indartsuen zanak lekutara bialtzen eben odola. Mailuki izozki handia miazketan eban neskatxia erabat odolustuta begitandu jakon Fernandori. Mailukizko izozkia eta idien odol lodia ziran bat neskatxaren soin osoan. Soinean eta mingainean. Fernando odol horri guztiari begira gelditu zan. Errebesatuta.

Hildakoen odolari be begira lotu zan, bera joian autobusak zubiaren kontra jo ebanean gau euritsu haretan. Danak egozan hilda. Fer-

nando burdina okerren artetik zutundu eta bertatik aldendu zan poztasun irrazionala sentituz. Aspaldian ez zan hain ondo sentitu, gorputza be ez eban sentitzen. Egingo eban gai zala hormetan gora igoteko bape ahaleginik egin barik. Emazteari kontatu behar eutsan. Edonori. Kale ilunetara jo eban, artean gogor eragoion euriaren azpian, eta bertan nahita galdu zan, zoro-zoro. Euri tantek burutik behera melatzen eben, potxingo txikiak egiten jakozan justu bekainen gainean, baina Fernandori bardin eutsan, horreek be ez ebazan sentitzen. Ilaun hutsa zan. Etxera bidean zala, bere urratsen oihartzuna bakarrik eban lagun. Bazter ilunetan agertzen ziran kale-garbitzaile eta eskekoentzat Fernando gauak une labur batez sortutako itzal perfektua zan. Ikusiezina. Fernandok gustura kontatuko eutsen gertatutako guztia, ezin baina. Hareekana hurbildu orduko deseginak ziran. Fernandori aurrentipen txar batek erasan eutsan, etxerago eta handiago. Hurbil egoan. Izkinara jo eta bere etxeko ganbarako argia iziotuta ikusi eban. Zein ondo! Behingoan etxean, azkenean emazteari kontatuko eutsan dana. Sartu aurretik ondoko etxeko gortinan bere bi auzokideen itzallak begiztatu ebazan, atso-agureak ziran. Betiko maratileari eragiten egozan! Fernandok

barre egin eban. Zaharren semeak, medikuak, egundoko dirutza eginda eukan, ezkontzeko egoan hogeitaz gazteago zan neskatxa bategaz. Abadeak, emaztetzat hartuko eban galde-tu eutsanean baietz erantzun eban; orduan Fernandori bihotza irauli jakon. Ezkonduta ala ezkondu barik hil zan? Ondareak, zahar giza-gaixoentzat ala alarguntsa barriarentzat? Fernando, ardura hori gogoan erabilela sartu zan etxera. Nekez eusten eutsan irribarre kezkatu bati. Emaztea han egoan, erdi ilunpean, egongelako narruzko besaulkian negurako taupaka bat trikotatzen. Ez eban agurtu, begiratu be ez eutsan egin. Behintzat musu emoten jagi izan balitz, ze lehen beti musu emoten eutsan etxeratzen zanean. Fernando urduri ebilen hara eta hona, eten barik astintzen ebazan eskuak eta emozinoaz berbak harilkatzen ahalegindu zan.

—Badakizu zer gertatu jatan lanetik nentorrela? Istripua, istripua izan dogu! Autobusa irauli da, euria sendo zan une horretan, eta jo dogu zubi baten zutoiaren kontra, orduan sugarrak hasi dira, gorpu horreek guztiak errepidean barreiatuta, eta emakume ha hilda neure gainean... Ez dozu ulertzen? Onik urten dot, bakarra, bakarra izan naz!

Emazteak ez eban murtik be esan, lasai asko eragiten eutsen orratzai. Fernando, bitartean,

egongelan zehar marmarka ebilen emaztearen arreta beregandu nahian. Ezin, ostera. Emaztearen aurpegiera ez zan aldatzen, nekez susmatzen jakon keinurik, txikienik be ez. Fernando, halako baten, egongelako argazki guztietatik falta zala konturatu zan, azken urteetan udako oporretan alkarregaz egindako argazki guztietatik. Beste gizon bat agiri zan bere lekuan, ezezagun bat. Fernandori berben borbor jarioa plausta izoztu jakon.

—Zer gertatzen da hemen? Hori da, ezta? Hilda nago, istripitik ez dot onik urten. Esan behingoz hilda nagoala, arren!

—Baina, Fernando, zer dinozu? A ze ateraldi zoroa! Zu hemen ez zara bizi, aspaldi banandu ginan, akaso ahaztu jatzu ala? Joan etxera beste bati zarata egiten, eta itxi gaizuz bakean!

—Fernando! Esnatu hadi, lahostia!

Baina Fernandok ez eban ezer entzuten, beste leku baten egoan. Ez ebazan Agirrerren oihuak entzuten, ezta idien min orroak be. Musika bandeak eten barik joten eban. Hain zan dana erreza.

—Eta zuek zer?

Kosmek eta Albertok nahikoa eukien kaba-ret haretan, beste taldekideai jaramonik egin barik. Kosme bere harria gobernatzen eta Alberto jente artean begirada bat topau nahian,

aspaldi galdutako maitale baten aldetiko maitasun keinu txikitxo bat. Ha galdua zanik ezin esan, euki baino lehen galdu ebalako. Beste guztiak lez. Beharbada horregaitik ez eban asmatzen buruntzaliaz idien zirina jasoten. Keinurik ez. Dan-dana barreiatzen zan galtzadan zehar. Idiek eta gizonek, bat eginda, irrist egiten eben galtzadan.

Kosmek baekian plazakoa amaitu eta etxera heldutakoan emaztea ohean zain eukiko ebana gauoroko jolasari ekiteko prest. Irribarretxo ahula egin eban bere baitan. Goiz oheratzen ziran beti. Iluntzean, telebista aurrean emondako kloroformo ordu luzeak nekez jasaten ebezan etxe haretako hustasunean. Oheko erropak jantzi, zein bere aldetik ohera sartu eta mesanotxeko argitxoa biztuteaz batera partida has-teko seinalea be emoten zan. Benetako txapelketa zan ha.

—Horra bada lehena, ezetz harrapatu! —inotsan emazteak, Kosmeri aurrea hartuta.

—Traidore halakoa!

Honek zazpiak eta bi egiten ebazan sur puntan lehertu ez ekion. Aurpegitik hiru-lau zentimetrora puztuz eta puztuz eusten ahalegintzen zan.

—Horra beste bat, handiagoa, hara zein polita!

Orduan biak lotzen ziran xaboi burbuilaren kolore bizien jirabirari miratuta, airean zintzilik, ilaun, harik eta besteak lez izara bustietan lehertu arte. Emaztea haserraten zan, hain ziran iragankorrak, eta Kosmek handi bat agintzen eutsan ustekabea, tutua busti eta berehala agintzen eutsan bat emaztearen erasoaldiari itxaron barik.

—Horrek ez dau balio, tranpa egin deustazu.

Baina Kosmek baekian emazteari be gustetan jakola burbuila ezpanen aurrean izatea, jolastea. Betiko lez, goizaldeko bostak ziran eta biek segitzen eben alkarri burbuilak agintzen, eta orduan jolasa amaitutzat emoteko Kosmek ahoa zabaldu eta irunsten eban azken burbuila.

—Zein tontoa zaran! Gure umeari be gustauko jakon hori, seguru.

Builaka hasten jakon emaztea, Kosme bat-batean isilik gelditzen zan bitartean. Argia itzali eta biak alkarri bizkarra emonda lokartzen ziran. Izaren azpian Kosmek azken malakoa isurtzen eban.

Musikariek notak biziagotzen ebezan, gero eta arinago jotzen eben. Baina, halako baten, bat-batean musika bandeak joteari itxi eutsan eta dana isildu zan. Azken balsa izan zan. Idiek eta gizonek behaztopa egiten eben eta inork ez eban ezer esaten. Honezkero ez zan

hain erreza. Eta halako baten musika bandeak joteari itxi eutsan eta dana aldatu zan. Jentea, koadrilakoak eta musikariak be hondoratu ziran galtzadako harrietan, non eta idiak geldirik etzazan azken arnasea emon beharrean. Gizonek aspaldiko partez begiratu eutsien alkarri, ez-ulertuarena eginez.

Beranduegi zan. Titanic hareekaz batera hondoratua zan betiko.

KEPARENA

Kepa ume txikia da, bost urte baino ez ditu, eta, gaur lez, andereñoaren azalpenai adi-adi egoten da. Gaur, ostera, zalantza biztu jako eta eskolatik bueltau danean, amari galdetu deuto:

—Ama, non dago Itsaso Baltza?

—Hara, seme, lehen Europako sortaldean egoan, orain Galizia aldean.

—Eta handia da, ama?

—Segun, zu oraindino txikia zaranez, handia begitanduko jatzu, baina, agintariak baizen nagusia bazina, orban baltz txiki-txikia baino ez zeunke ikusiko.

EGURREZKO HANKAK

Kaximirok Jesukristotzat hartu dau bere bu-
rua. Holan sentietan da, Aste Santuko prozesi-
noetan ateraten daben Kristo erraldoia lez.
Baina ez dago Kaximiroren zama eroan nahi
dauen kostalerorik. Astunegia da, astunegia
Kaximirorentzat berarentzat be. Ama azkene-
an nekatu jakon. Danen isilean emoten eutsan
diru apur bat, egoera haretan ez ikustearren.
Aldatuko zalakoan beharbada. Aitak, ostera,
hasikeratik argi azaldu eutsan, berarena lako
semerik ez ebala jasango; ikusi be ez ebala
nahi. Berba gitxi esanda bialdu eban etxetik,
kale gorrira, bere ustez merezi eban leku baka-
rrera. Bai, aita berba gitxikoa zan, baina oihu-
lari aparta beheko tabernatik edanda etorrene-
an. Amari ubeldura bat baino gehiago kostau
jakon semeari diru apur bat emon izana. Ha-
landa be, ez eban hain errez amore emon, au-
zoan edonork baieztu eikean hori. Zazpiak eta
bi egin ebazan semeak kalea itxi eian, berak
eroan eban eskutik, ia bultzaka, auzoan zabal-
du barri zan metadona gelara. Baina Kaximi-
rok metadonaren kontu hori ez eban atsegin,

inbertsonalegia, hotza eta aseptikoa begitantzzen jakon, transzendentzia bakoa. Kaximirok kale bazterrak maite ebazan, kale bazterrak eta auzoko junki zaharrak, hondatuta egozan gorputz hareek, azkenak, drogaren miraren bero ikara.

Amak azkenean aditu eban, Atxuriko gelto-
kitik semea kai abandonatuen eskailera gorol-
dioztatuetan ikusi ebanean. Kaximirok ezbe-
harra izan eban ezkerro, itxaropen errainua gor-
deten eban bere artean. Baina hantxe egoan
semea, torpe eta aldi berean kementsu kaiko
eskilaratatik jaisten egurrezko hanka biak erre-
kako lohitzan hondoratzeraino, lazunek egu-
rretan koska egingo eutsien tokiraino.

Hagaitik, Kaximirok ez eban inoiz itxarope-
na galdu. Ez eban galdu egunen baten auzotik
betiko urtengo eban itxaropena. Ez eban galdu
droga be itxi eikean itxaropena. Ez eban galdu
barriro be ibiliko zan itxaropena, harrobi aban-
donatuaren tromeletik jausi eta hanka biak
gangrenatu jakozanean.

Oin, egurrezko hanka-ordeetan heroina xi-
ringa sartzen dauenean, ez dau sentietako itxa-
ropena galdu.

JON MIRANDE BILBON

Jon, Bilbo zara, lanbrotsu, itzal, lizun eta burdinazkoa.

Abenduko egunsenti laiotz eta gurmatxua. Hartuko gaituan azken tabernearen hondora goaz Pigalle auzoko kale ezezagun batetik zehar. Gure alboan igaro diran soinuek ez dabe burutik ihes egin nahi, mingarriak jakuz. Arna-sea erabat izerditan dot, zeuk bere begien izerdia odoletan dozu, alkoholetan dogu gogo. Dana dago zarratuta, oster; Raymondek eskeintzen deustan ohea salbu. Haxe da diru apur baten truke ordu honetan zabalik dagoan ostatu bakarra, bertan puten ardao kantariaz hordituko naz. Eta ni egarriz, egarriz bihar-munean betuleek soilik estaltzen daben puta merke honen sabeleko ardao mikatza ahora eroateko. Maldan behera segitzen dogu baina, Erribera aldera. Orain beharginak euren postuetara doazenean argitasunak garbitu nahi ditu uriaren pekatuak. San Anton zubiaren zutoien kontra talka egiten dauen itsasgoreak atoian eroango ditu gauak batutako garnu eta

okak. Horreek be, sarri, mezuak dira, etsipenezko mezuak, berunezko hodiedtan barrena infinitora galtzen diranak; inoiz garagardo-botila hustuetan idatzi izan doguzan lakoak. Beharbada, Normandia edo Britainako hondartzetara barriz lehorreratuko dira, inork irakurriko al ditu. Saint Denis auzo zaharrean emagaldutako zuberotarren oihuak mutu dira kalekantoietan, banaka urruntzen dira azken momentuan egindako bezeroen eskuai helduta, eta urrunago bakarrik txakurren itzalak eta mozkortien kantu itoak.

Raymondek Senaren ertz batetik bestera narabil, La Merced zubitik atzera be jo dogu Bilbo Zaharrera; alu honek azkenean zoratuko nau. Ez dot kemenik eguzki ahularen printza bakanai aurre egiteko, txute bat behar dot aurrera segitzeko. Geltoki zaharrerantz eroan gura dot, lehen domeka goizetan merkatu txikerra jarten eben arkupeetara, euri langarra hasi dau eta ez dot bidaia-txartela zapuztu nahi. Isilean saihestu behar doguz kartoiek biltzen dabean auzoko junki eta kobazulo horberik aurkitzeko zortea euki ez daben etorkinen gorputz abailduak. Leku nasaia da, ez deusku inork enbarazu egingo, halanda be, aterbetuko gara geltokiaren kanpoaldean. Raymondek, adeitsu, txutea sartzen lagundu deust,

nire flakiak alperrik galduko leuke. Hasi naz hobeto sentitzen. Bidaia laburra da oster, iragankorra, tren geltoki honetatik orain egin leitekena baino laburragoa. Burdinsare urdinen artean nasa gris eta bakartietara begira gelditu naz, aspaldiko bizitasunak ibai ertz honeetatik ihes egin dau, geu baino ez gara hemen geratu. Sonanbulu, iraganeko doinuak etorri jataz akordura, rue de la Republique kalezuloan zan *Gaueko* tabernan ordu txikiak arte gozaten genduzan hareek: “Lorak ezkututzen dira arratoi herrialdean, eguzkiak ez dau berotzen, fabrikak ez dau produzitzen, keinu tristeko langileak tren zikinetan problemak erretzen”. Eta bai, gaur atzo baino okerragoa da eta nork daki bihar zer izango dan.

Hemen egotea ezin dot jasan, higuigarri jat, etorri garan leku beretik itzuli beharra baino ez daukat. Batera bestera ahalegintzen naz Raymond aurkitzen bertatik arin baten alde egiteko, ez dot inon ikusten. Itsasadarraren aldeko eskilaretan jarrea gustuko dau, bertan aurkituko dot. Baina ez, han ez dago; norbait bada zutunik, arrotz, harmailetatik uretara begira, beharbada lehenago bidaiak erreparatzen itxi ez deustan bat, baina ez da Raymond. Puta honek barriro atzea emon deust, baten batek nik baino diru gehiago eskeini eta haregaz

joan da, beti egiten deust bardin. Aurrera egin dot ezinbestean, bertan bakar-bakarrik lotu da arrotza eta biharamunean hodei artean gelditu jat galdera, nor zan bera? Atzera jirau dot burua puzzlearen zatia aurkitu nahirik. Zerbaitek barruan atzaparka egiten dau. Morroi txikerra eta zabalotea, lar gazte zahartutako aurpegia eta ulea, sur zabalekoa baina begi eder, hantxe zirauen begirada ur nabarretatik baztertu bari. Zerbaitek barruan atzaparka egiten dau. Euri langarrak antiojuen lurrin lausotua garbitzen eutsan, seguru antzean, goizargiak oka egindako beste bat. Baina bada barruan atzaparka egiten deustan zerbait, ezaguna jat, garbardina saskel hori, eskuak poltsikoetan sartzeko erea, ez dakit, baleiteke San Frantzisko kaleko leizezuloetan ikusi izana.

Bai, jakina, ez zaitut ezagutu, zelan aldatu zarean Jon. Bart bere ezin izan dozu lorik egin. Zure etxeko leihoak astintzen dituan haizeak aspaldian eragozten deustu loa. Lehengo egunean Oianone ikusi neban Bilbo Zaharrear, betiko kale kantoian, betiko zapata gorri eta ezpan lehertuakaz, beharbada zaharrago, igartuago, normala da. Mesanotxean, beste euskaldun batzuek mezaliburua ixten daben leku berean, lo egitekoak izaten dozuzala esan eustan; vodkagaz hartzen segitzen badozuz kalte egin-

go deutsue. Ez dirudi, oster, bart euren egitekoa bete ebenik, zenbat ordu daroazuz kalean? Ni legez alkoholuntzi eginda zagoz Jon, zure begi lurrundu nekatuek hustu barri dabe gauaren azken ardao botila. Oianonek auzoan buru makur eta ilun paseatzen ikusi zinduzan, zuk ez zeuntsan jaramonik egin. Gogoan zaitu beti, asko arduratzen da zugaz. Nahi izan ezker, gaur era berean ikusiko dozu, betiko begirada galduaz, samindura irribarrean. Barriz ikusi behar dozu Jon, musu eta laztanak banatzen besteen besoetan. Gaur era berean ikusiko dozu, pub iluneko izarra, zure ametsen grina, parebako edertasuna kolore artean dirdiraz. Eta hurreratuko zara, hurreratuko zara Barakaldoko trenetan hurreratu zinan legez, sirena agortua zer habil hemen? Puta honegaitik zoraturako zara Jon. Trena geltokira heldu zanean oskarbi zan, Pigallen izarrak biztuten ziran. Gelan sartu zinien eta orduantxe bildu ziran zugana munduan diran nahirik ilunenak. Ohean etxun zinien eta mundua mututu zan, gau haretan zenduan narru leun eta zuri, bular samur, sabel guri. Zure alboan etzan, ezti ugariz jantzita, haren mamin maitea urtzen zan zure ahora, zabalik lora antzera eta gozokiz betea. Luxenburgoko lorategiko loren artean maiz ikusten zenduan goiz argitan, baina iluntzean

barrako aulkira joatean ez egoan inor, ametsa baino ez zinan, euripean joana jatzun Nerbioi ibaiaren uretan karmin arrastoa itxiaz.

Pitietik etorri zinanetik ez zaitu inork eza-gutzen, gogabetuta, aspertuta ikusten zaitue danek, Teresa itxi zenduan hondartzara berehala joan nahi zendukeen legez. Ea noiz igaroten zarean Pigalleko tabernetatik, neskek barriro ikusi nahi zindukeez, badakie itzuli zarena gaztetako lagunagana. Nork esango leuke, danek uste eben lagun zenduzan bretaniar edo irlandar ulegorriagaz azkenean ezkonduko zinala; horreentzat lar heldua zarala esatea be! Nik, ostera, beti gogoan izango dot ha euskalduna, nongoa zan? Bai, zuberotar baltzaran ederra.

Jon, hemen ezin gara gelditu, Plaza Barriko kafetxeak zabalik izango dira honezkero, biok nekatuta gagoz, hartu daigun kafe bana. Monparnaseko jazz musikariak tabernetan aurkituko doguz, goiztiarrak dira euren zereginean. Badakit jazza atsegin dozuna, Le Charlis ondo dago ordu honetan, ez dago jente askorik, kafea ona da eta gainera oraindino ez dira jatsi txakurrak paseatzera ateraten dabezan auzotar tentelak; musikaren notek giroa lasai beteten daben leku horreetakoa da, bioi on egingo deusku. Nahi badozu, akademiaren egoitza au-

rretik igarotea saihestuko dogu. Harako batzuek, beste askok legez, ez zinduezan estimu handian, halanda be, danak ez ziran lanak zentsuratzeaz arduratzen zan Baionako ha kallonjea lakoak. Oraindino, triste gomutetan dodaz jasan behar zenduzan liskarrak eta irainak.

Zeure behaztuna edaten dozu, Jon. Gurasoena bere ezin dozu gaudituz. Tamalgarria izanda orain gertatzea, eta hain tarte laburra bi heriotzen artean, justu inoiz baino sosegu handiagoa behar zenduanean. Albistea Pennaodek, zure lagun britaniarrak, ekarri euskun. Auzoan danok sentitu dogu, Oianonek eta Raymondek berehala mugiarazo ebezen besteak, Havana Cafe tabernako zerbitzariak eta emagalduek dirua batu euren zure aitari lora txorta bat bialtzeko; atsekabetuta egozan, Las Cortesen ez zan besterik jentearen ahotan. Dan-dana egin euren hobeto sentitu zeintezan. Pennaod zuen etxetik pasa zan betiko erreka-duak eroatera, etxekoek bertan daborduko bizi ez zinala esan eutsien, gurasoen heriotzaz geroztik larregi edaten zenduala eta ez egozala prest zure zoroaldiak jasateko; etxekoek bere kanpoa emon deusue, Jon, Sohütako loba baino ez jatzu geratu, harek gura dozun guztietan hartuko zaituzte. Zure oraingo apartamentura joan zanean lurrean topau zinduzan ohes-

talgietan etxunda, negarrez urtuta. Egunak zeroiazan ez jan, edan beharrera joan barik, ez zinan gai inor ezagutzeko, ezta alboan izan dozuzan lagunak be. Berehala ospitalera, Pitiera, eroan zinduzala esan euskun. Ahaleginak egin dabez onera etorri zaitezcan, baina segitzen dozu tabako eta alkoholetan alperreko kontsolamentua aurkitzen, zuk ondotxo jakin arren benetako osagailuak ez dirana. Beharbada, beste era batera konpondu nahi zenduke, Jon. Lehengoan ikara handia emon zeunskun, erietxera zanak ebagita eroan zinduezan. Orduan medikuak itaunak egiten hasi jatzuzan, badakizu zelangoak diran, gure baitako arrazoiak interesatzen jakez, horreetan konponbidea bilatu nahi leukielakoan. Itaundu eutsuen zer zan garrantzitsuena zure bizitzan. Zuk idaztea zala erantzun zeuntsen. Baina, Jon, lau urte joan dira ez deuskuzula ezer idazten. Zure isiltasuna oinaze tormentagarria jaku, eta zuri, Jon, idazten ez dozun berba bakoitzean zure bi-ziaren zati bat arin joatzu, arinegi.

Ia eguerdia da, Jon. Euria da eten barik, goiz osoan ez dau atertu, giroa hotza da. Maiatz hau ez da beste urteetako langoa, negua lar luzatu dau, gure gogoak nabaritzen dau. Hemendik ez dot ondo bereizten begietan, betaurrekoen kristalaz bestaldean, dozuzan ur arrastoak

malkoak ala euri tantak diran. Negu luze honetan Montmartre parkeko usoek txarto igaroko dabe, ia ez dabe izango zer jan. Sakelean badaukadaz arto ale batzuk, Raymondentzat gordeta neukazan, amodioa egin ostean atsegin izaten dau zer edo zer jatea eta aleok behin prijidu ezker gozo egoten dira; lastima, ahurka jango ebazan. Nahi bazendu, ibaiaren ertz-ertzetik paseatuz joan geintek ez Montmartre-raino, eta usoai jaten emoteko ale nahikoa ez bada, Arenaleko hallesetan erosiko doguz gehiago. Orain eskoletatik tropelean urteten dabe umeek. Alai urteten dabe, artez ur pozuetan plisti-plasta ibiltera; ez dira gurasoen errietten bildur, ez deutse ardura. Guraso eta umetaria zaratatsuaren artean Teresa, bat-batean agertuko bailitzan, bilatzen dozu, Jon. Sarritan umez beteriko parke eta eskola inguruetan zelatan ikusi izan zaitue. Guraso bati baino gehiagori susmoak eragin deusazuz, baina, zuk, Jon, zure alaba besoetakoa benetan maitezenduan. Higuina sortarazoten deusue horrek guraso zuri guztiek, umeen jabe diralakooan dagoz, zer dan on eta txar dakielakoan dagoz eta umeak hiltzen segitzen dabe. Jainkoz eta legez josi dabez, eta nagusitan gorrotatuko gaitue. Umeak hiltzen segitzen dabe, askatasuna ezin dabe ezagutu, esklabu dagoz buru pentsa-

mentuetan, loturik barruko kateetan; zuk, Jon, Teresa guzurretatik salbau nahi izan zenduan.

Teresa zure alboan gordeten zenduan, etxean. Zuk zeuk irakasten zeuntsan behar eban guztia. Etxera etorri jatzuneko zeure buruari agindu zeuntsan haren heziketaz arduratuko zinala, ez zan eskolara gehiagotan joango. Hau lako arratsaldeetan poliki ikasitakoa, zure aldamenean jarrita, biok sutondoan, gozo irakurten eutsun. Egongela beteten eban musika germaniarrak laguntzen eutsan, zuri vodkak, eta orduan inoiz baino ederragoa jatzun. Bere gorputz oraindino zuri txikia sugarretan hazten zan lirain. Zoratzen zinan. Zoratu egin zinan Isabela, zure orduko andregaiia, higuintzeraino. Neska ederra zan, parte onekoa, horri bere ezkontzeko berbea emon zeuntsan, baina zu alaba besoetakoagaz maiteminduta zengozan, Teresak bere maite zinduzan; beragaitik dandana galtzeko prest zinan. Jente zuriaren zurrumurru gaiztoak ez ziran falta, halanda be, gaboro Teresaren gorputz oraindino gaztea segitzen zenduan bihotz eta arimaz gozatzen.

Besoetakoa zugaz gordeteagaitik lehiatu arren, kendu nahi izan eutsuen; hobe beharrean inoen. Etsi zinan, abaildu egin zinan. Biok hondartzara joan zinien, beharbada azken agurra egitera; zuk, ostera, bazenkian Teresa ez

zana ezertan be zugandik aldenduko; gurago ebala hil autortu eutsun. Harea epeletan azkenengo biderrez amodioa egin ostean itsasoan sartu zinien uhinek zuen pekatuak garbitu eizan. Laster olatuek Vodkak ahuldutako besoe-tatik erauzi eutsuen. Maite zenduala eta beste-engandik urrun alde egingo zenduela etsita oihukatzen zeuntsan. Alperrik, neskatoak korronteak eroan eian laga eban, astiro bere gorputz zuri txikia olatuen kulunkan hondora murgilduz joan zan; irribarre egin eutsun azken aldiz. Eta zuk, Jon, ezin izan zenduan besterik egin.

Atzo oraindino itsasoak bihurtuko eutsulako itxaropena gordeta zeunkan, horregaitik beti begiraten zenduan uretara, noiz agertuko zain, ur horreetan betiko bat egiteko, baina maiatz iluntze hau ez da beste urte batzuetakoa langoa, Jon. Itxaroten nekatu zara. Euri lanbroak negar egiten dau eten barik museoaren titaniozko hormen gainean. Inora ez doazen itsasontziak opari egin deuskuez, itsasorik zeharkatuko ez daben munstro hilak dira. Euren porlanezko zutoi erraldoiak ertz bizibako honetan hondoratzen dira, ez dabez musukatzen ibaiaren ur-burdinak; zeuk bere deitoratuko zendukez.

Jon, San Anton zubia zeharkatzen ikusi zaitut maiatz iluntze honetan. Beste askok legez

uretara begiratu dozu, baina aukera hori bere galarazo deusue, ur horreek ur ukatuak dira, itsasoa debekatu deutse. Horreetan ez dozuz marinel zaharren lanturuak entzungo, ur azalotan arratoi hilak eta konpresen zelulosa baino ez dagoz. Bakar-bakarrik geratu dira, kulunkan egoten ziran itsasontziak barik. Eta zuk, Jon, ez dozu salto egin, ur horrek ezin zaitu iruntsi zeltar paradisuan Teresaren alboan birsortzeko. Ez deusue itxi; ur horreen jabeek, gorroto deusuen berberak, ukatu deusue. Azkenean, norakorik barik, nahiago izan dozu Pariseko apartamentua, jabeongandik urrun. Ohean etxun zara, Jon, lo egitekoen tutu osoa hustu dozu edalontzian. Ez deusazu inori ezer adierazoko.

Jon, Bilbo zara, lanbrotsu, itzal, lizun eta burdinazkoa.

MEDIKUARENA

Auzoko medikua nekatuta heldu da etxera.

Gaur be beste neska etorkin bati lagundu deutso erditzen. Etxe aberats baten bizi da, auzoko bakarra.

Atea idegi dauenean, ostera, hamaikagarrenez ez dau aurkitu ezkondu aurretik hainbestetan deseatu eban etxegiroa. Emazteak ez deutso agurrik egin, lanpetuegi dago datorren asteko gonbidatuentzako afaria prestetan.

Beharbada, lanpetuegi ibili izan dalako ez dau umerik munduratu.

—Zer, beste bat?

—Bai, beste bat, inporta deutsu?

—Beste neskame bat ez badogu hartu behar, badakizu zuk egiten dozun guztia ontzat emoten dodana; zelan ikusten nozu afarirako jantzi barriagaz?

—Beti baizen eder, bihotza.

Orduan, medikuak burusi zikinetan bilduta ekarren jaiobarria ondoko gela handira eroan dau. Barruko hamar umEEK algaraka agurra egin deusie etorri barriari.

ELEKTROTRESNAK

Beti gustau izan jakoz elektrotresnak, ezin dau ebitau. Zidar koloreko plastiko karkasak, batera eta bestera mugitzen diran kontrolak, argi gorri keinukariak, esnegaina ederto harrotzen dauen minipinerra, larehun watioko Pioneer barria “Konekta zaitez” iragarkiaren ondoan, teklatu ergonomikoak... Baina, batez be, saltzaile-bezeroen arteko barriketeaz gain benetan atsegin dauena traste handien enbala-jea puskatzea da, kartoia milaka zatitan desegin eta kortxo zuritik gora tiratzean igurtziaren zaratea astiro entzutea.

Atzo lez, iluntzean, dendako erakusleihoan neoi-argiak biztu dira, barriro be gizona, zenbatgarrenez ez dakiala, barrura sartzera tentatuz.

Bere burua sartzan ikusi dau eta berehala gogoz hasi da bila sukaldeko altzariak egiten daben laberintoan. Amerikana, emazteak erregalau eutsan gorbatea eta alkandora barria han-hemen zabaldu ditu. Aurkitu dau azke-nean goitik ikusita xake-taula irudikatuko leukien mahaien aurrean jarrita. Salmenten kon-

tabilidadea egiten dago. Irribarretsu, azpitik sartu da gona barrutik usainka igoteraino.

Bitartean salmenten kontabilidadea egiten dagoan emakume batek erlojuari urduri begiratzen deutso. Zain dago. Heldu danean, indarrez saka egin deutso hozkailuen ateen kontra. Amerikana, emazteak erregalau eutsan gorba-tea eta alkandora barria laster erantzi eta han-hemen zabaldu deutzaz. Oin-puntaz hozkailurik handienaren atea zabaldu dau eta bereganantz, bere altzora, erakarri dau gizona. Orain No-Frost modelo barriak nekez arintzen dau bien arnasea.

Une berean, mahai azpitik sartu eta gona barrutik emakumea laztandu dauen gizona zutundu eta erabat biluztu dau. Eskuak hotz ditu, hozkailu baten ondoan egon izan balitz lez. Emakumeari, jakina, ez deutso horrek ardura izan. Zutundu eta emakumea ikuzgailuetaraino eroan dau. Badago bat abian, bezeroek zelan dabilen ikusi daien. Hantxe, gainean, bermatu dau eta haren besoetara bildu da. Ikuzgailuaren triki-trakak egin dau dana, ez dabe asko ahalegindu behar izan.

Momentu horretan bertan hozkailurik handienaren ate aurrean bereganantz, bera altzora, gizona erakarri dauen emakumeak urrundu dau eta armairu baten barrura sartuarazo deu-

tso, logelako armairu handi batera. Nahiago leuke ikuzgailu gainean egingo balebe, baina ez da inoiz esaten ausartu, lotsa emoten deustso. Halanda be, biak sartu dira, biluzik. Ateak zarratuta ilunpean hasi dira alkarrengana, korapilatzen jakezan enbalajearen kartoi eta plastikozatien artean gorputzak aurkitzen ahalegintzen dira. Dana emongo leukie, armairu horren barruan alkar aurkituko balebe.

Beti gustau izan jakez elektrotresnak, ezin dabe ebitau. Zidar koloreko plastiko karkasak, batera eta bestera mugitzen diran kontrolak, argi gorri keinukariak, esnegaina ederto arrotzen dauen minipinerra, laurehun watioko Pionner barria “Konekta zaitez” iragarkiaren ondoan, teklatu ergonomikoak... Baina, batez be, saltzaile-bezeroen arteko barriketeaz gain benetan atsegin dabena traste handien enbalajea puskatzea da, kartoiak milaka zatitan desegin eta kortxo zuritik gora tiratzean igurtziaren zaratea astiro entzutea.

Atzo lez, iluntzean, dendako erakusleihoan neoi-argiak amatau dira, barriri be senar-emazteak isil-isilik eta kale hotzetan barrena, zenbatgarrenez ez dakiela, etxera joatera behartu.

JOXERENA

Orain arte Joxeren gozo-denda izan da auzoan gelditzen zan bakarra, gaurgero ez. Aspaldian igaro zan eskolako umeak tropelka kremazko ttuttuak erosten etorten ziraneko sasoa. Orain, egia esan, ume gehiago ikusten da auzoko kaleetan, etorkinai esker, baina ume horreek oraindino ez dabe ikasi zer dan kremazko ttuttuak jatea, atzamarrak eta ezpan-ertzak kremaz zikintzea, eta hainbat gitxiago, zer zan azaletik eben urun zuri-zuri azukreduna jertsetik botatea. Gaurgero ezinezkoa izango dabe, Joxek denda itxi egin dau eta. Joxe, zorioneko jubilazinora ezin izan da onik heldu, burua zoratu jako, hau da, pipiek apur bat jan deusie ganbarea, hori da behintzat auzoan esaten dana, baina batek daki. Kontua da buruan sartu jakola uriko detektiberik onena dala, eta hor dabil jo eta ke erosi barri dauen saxoari, amerikar detektibeen antzera, nota tristeak atera nahirik. Izena be aldatu egin dau, Joxeren ordez Joe zala inotsen ebazan azken bezeroai. Kaximiro, *Pitufoa*, auzoko azken junkia, azken errelikia, nahiko kuku egoan istorio horregaz, berehala astintzen ebazan txu-

teak sartzen ebazan egurrezko hankak –bene-
takoak, biologikoak esan daigun, San Luis
meategiko tromoletik jausita galdu ebazan,
gangrenatu jakozanean– uste ebalako auzoko
polizia guztiak gainera botako eutsazala. Ha-
landa be, txikitan legez, beti kremazko tuttu-
ren bat ohosten eutsan Joxe jirutzen zanean.
Auzoko medikuak be ez eritxan bape egokia
Joeren portaerari, parkatu, Joxerenari. Baina
harek lan franku eukan emazteagaz. Hor ikus-
ten zan hamaikagarrenez ume jaiobarri aban-
donaturen bategaz, burusi zikinetan bilduta
etxerako bidean. Putetxera noiz sartuko aiko-
-maikoetan gelditzen ziran kale garbitzaileek
mesfidati begiratzen eutsien, ea ez ete eban
deituko kamioia erretirutzen etorri eitezan.
Baina benetan amorratuta egoana Pedro Mari
zan. Lehendik be baetorren kontua, izan be,
Pedro Marik aurrez aurre baeukan beste gozo-
denda bat, auzoan nahiko aberatsa eta inpor-
tantea, uriko onena izan zan izkina guztietan
gozo-dendak egoteko, baina orduan be lehia
kapitalista hil edo biziko kontua zan. Pedro
Mari be ez zan zorioneko erretirora onik hel-
du.

Goizean Pedro Marik kainoi laburreko esko-
peta tiro batez akabatu dau Joxe, uriko *kaporik*
handiena dala buruan sartu jakolako.

**LEIHOTIK BEGIRATZEA
ATSEGIN DOT**

*Gauero aterako nintzateke paseatzera,
baina ikara ematen dit, ez naiz atrebitzen*

Leihotik begiratzea atsegin dot, ez dot besterik egiten. Beste gauza bat egin neike, baina ez dot nahi. Batzuetan bestelakoak egiten ahalegindu izan naz, baina, hasi eta berehala gogaitzen dot. Behin telebista izan nebala gogoratzen naz, dana zuri-baltzez ikusten zan. Ha hondatu eta postontzian aurkitu nebazan supermerkatuko orrialdeen artean azaltzen zan bideoak be ez deust gauza handirako balio izan, egia esan, ardura be ez deust larregi. Kirola-edo egiteari aspaldi itxi neutsan, berehala hasten nintzan izerditan eta nik ez dot izerdia gustuko. Kalera be ez dot urteten, zertarako urten, bada? Espaloian jente asko hara-hona ibilten da. Zapalduko ete naben bildur naz. Ez; behar-beharrezkoa ez bada, ez naz egundo kaleratzen, amak ekarten deustaz behar ditudan gauza guztiak. Amari asko gura deustat. Etxean irakurri be ez dot egiten, ahalegindu naze-netan lar penatu izan naz eta negar egiteari

emon izan deusat, eta nik ez dot negarra gus-
tuko, anpuluak izerdia langoak dira. Gaziak be
badira. Guren dodana leihotik begiratzea da,
horixe dot atsegin, areago neska haren erruz
beharretik bota ninduenetik, denpora gehiago
daukat eta. Leihoan orduak eta orduak emoten
ditut, egunez zein gabaz. Batez be gautzen
dauenean dot atsegin. Bizi nazan solairutik
etxarte zabalak ikusten dira, baina nahiko hur
dagoz barruan jazoten dan guztia zehetasun
handiz ikusteko. Ez dot detailerik txikiena be
galtzen. Amak jertseak egiten dituan aulkia
hurreratu eta mokobedarren artean kanpoalde-
koa gozaten dot. Amari asko gura deusat. Ez
naz jentearen begi egarri paretan, gero nire le-
potik txarto esaka ibili ez daitezkan. Ez dot kux-
kuxeroa nazala uste izan daien nahi, ez naz
eta. Jenteari jarraitu eta bere bizitzaren gaine-
ko istorioak neure kolkorako asmatzen ditut,
horixe baino ez dot egiten.

Esaterako, aste honetan bikote bat heldu da
aurre-aurrean dodan eraikinera. Iluntzean, ar-
giak iziotzen dabezanean euren gerizak ikus-
ten ditut. Egunez, adi egoten nazan arren, ez
ditut oraindino ikusi. Bikote gaztea izan behar
dau, hogeta hamarka urtekoak, jo daigun ez-
konbarriak dirala. Bai; ezkonbarriak dira,
maiatzean ezkondu dira mutilaren aitaren he-

rrira. Zorte handia izan dabe, berehala dirua lortu dabe pisua erosteko. Aspaldi maitemindu ziran, unibertsidadean. Jokinek, mutilak, hainbat ikasgai itxi eban irailerako, nonori laguntza eskatu behar eutsan, ikasturtea gaindituko baeban. Ikastalde bereko Miriami laguntzeko eskatu eutsan. Miriam neska azkarra zan, beharbada ez eskolako azkarrena, baina prest azaldu zan Jokini laguntzeko. Polita be bazan. Ordura arte, alkarregaz ikasi arren, ez eben ia hartuemonik izan, korridoreetan eta fakultadeko tabernan gurutzatzen ziranean alkar agurtzen eben, besterik ez. Abuztu haretan, ostera, bestelakoa izan zan. Hobeto alkar ezagutzen eta apurka-apurka maitemintzen be hasi ziran. Zoriontsuak dira.

Gaur, beharbada, Jokini ez jako gustau Miriamek prestau deutsan afaria. Batzuetan ezin deutso gustetan jakona ekarri, lanetik nekatuta etorten da eta. Horregaitik kalera jo dau atea danbatekoaz zarratuta. Miriam negarretan lotu da. Askotan bizimodu barria gogor egiten jake. Halanda be, maiteminduta segitzen dabe. Jokin itzultzen danean, parkatu deion eskatuko deutso.

Baina ez, ez da posible. Gaur ikusi ditudan geriza urduriak ez dira gazte enamoratu batzuenak. Ezin dira izan. Ez eben unibersidade-

an alkar ezagutu. Jokinek zaharragoa dirudi eta Miriamek ule urdinak kafez tindatzen ditu. Haserre dago. Jokini behin eta barriro umerik ez izana leporatzen deitso. Neuri be gustetan jataz umeak, batez be uniforme urdinabarrez jantzen diran mutikotxuak. Jokin beharretik datorrenean, lohihartzeko beilegi bizia erantzi eta geldiro doa logelako armairura. Ondo apainduriko kutxetan amaren gauzak ditu gordeta. Batetik tulezko soineko luzea atera dau, politena, eta bazter baten egon behar dauen ispiluaren aurrean jantzi dau. Une horretan aita etorri jako akordura eta ikaratu da. Neuk be aita izan dot gogoan eta ikaratu naz. Orain Jokin eta Miriam isilik dagoz telebistari begira. Miriamek baleki.

Baina ez, hori be ezinezkoa da. Jokinen amak ez eban egundo tulezko jantzirik izan eta logelan ez dago ispilurik, komunean dago. Bertan dago Miriam, berrogeta hamabost urteko andrea, aurpegian dituan zauriak osatzen. Anbulatorioan, kalean jausi dala esan dau. Ezkaratzean zartagina ketan dago eta olio errearen usaina handia da etxe osoan. Jokin egongelako besaulkian jesarrita dago. Elastiko hutsen dago eta trago luzeak egiten deutzaz botileari. Telebista ez dago inorentzat. Lanpostua galdu ebanetik ez da ezertarako jagiten,

ez bada Miriam etxeetan garbikuzia egitetik datorrenean. Beharbada Londresen daukien alabearen gutuna jaso dabe. Irrikaz dago gurasoek erosiko eben etxe barria ikusi eta bertan, antxina lez, alkarregaz afari on bat egiteko.

Baina hori be ezin leiteke izan. Miriamen alabea hilda jaio zan. Komisarian galdu eban. Gaztetan gurasoen etxetik alde egin eta auzoko junki bategaz, Jokinegaz, bizi izaten joan zan. Txikitatik, parkeko txingoetan olgetan ebenetik, lagun minak izan dira, lagunik one-nak, edo segurutik bakarrak. Jokinek menpekotasuna asetzeko lapurreta txikerrak egin behar izan ditu. Miriamek guztietan lagundu izan deutso. Jokin ez da beti etxean egoten, kanpoan sarri, gehienetan kale gorrian, burua gorde behar izaten dau polizia etxera bila joan ez dakion. Miriam, beharbada, noiz etorriko zain egoten jako. Aldian-aldian otorduak prestetan deutzaz eta erropetan dakarzan odol arrasto lehorrak ikuzi be egiten deutzaz.

Baina ezin da. Miriamek ez eban inoiz Jokin izeneko inor ezagutu. Miriam hemendik urrun bizi da, beste uri baten bizi da. Eta labanea zorrotzen dagoan gizona ez da Jokin, beste bat agiri da atzean daukan argiaren gerizpean. Bakarrik sentitzen da, artega lantzean behin. Beharbada labanea zorrotzen amaituta gabardi-

nea jantzi eta kalerantz abiatu da, honantz. Hur-
rrengo beharra darabil gogoan.

Halako baten etxeko atean joka hasi dira.

HUNGARIAKO ERREGEARENA

Antselmo Handia, Hungariako erregea, ikaragarri perfekzinozalea ei zan. Behin, melankolia sakonak jota, eta ameseta txar tristen artean, bere buruaz beste egitea erabagi eban. Hain ardura handia hartu eban gorteko kontu guztiak ondo lotuta ixteko, ze, begiak betiko bildu baino lehen, urteak eta urteak igaro eban bere gorteko kontseilariakaz batera arazok konpontzen, itunak sinatzen eta audientziak egiten.

Azkenean, dan-dana ondo amaituta itxi ahal izan ebanean, erregea, hain egoan zahar eta gaixo, ze ez eban gogoratzen zergaitik igaro izan eban bizitza osoa erritmo zoro haretan lanean.

ERREPIDEAN

Abuztu sargoritsu honetako goiz-goizeko lehen eguzki errainuak Iñigo Ugarteren izaretan ispilatu orduko, bera baegoan berehala etxetik urteteko behar ebazan gauza guztiak atontzen. Armozua arin hartuta autoaren bila joan zan, ia karraderan joan be. Emaztea eta bi seme-alaba gaztetxuak Nojako apartamentuan egozan, udako oporraldia igaroten.

Baina, berak be abuztuan oporrak izaten ebazan arren, aurten lantegian atzeratuta eukien beharra tertzioz amaitzearren, ebatzi eban etxean aste pare bat gehiago lotzea, ez gogo handiz seguru. Astero Nojara joaten zanean, etxekoak ikusten ebazan, eurakaz astegoiena emon eta domeka arratsalderako bueltan egon zintzo-zintzo astelehenean atzera be beharri ekiteko. Edozelan be, etxean bakarrik egotea subertau jakon. Bera be orain lehen hainbeste barregura eragiten eutsan “Garaiko-etxea” dagoan gizon horreetarikoa zan, andrea-eta etxetik kanpo eta bera bitartean jaun eta jabe sentiarazoten eutsan udako askatasun iragankorrean bizi zala. Dana dala, libre bazan

izan, baina Iñigo ez zan bape ondo moldatzen, etxean gauzaeztan hutsa zan. Etxea ikustea benetan bildur emotekoa zan, erropa zikina non-gura, itzelezko plater ustel piloa harrian garbitu barik eta Telepizzaren kutxen bilduma oso-oso. Koitadua zoratu beharrean egoan. Horregaitik, astegoiena ailegetan zanean, autoa hartu eta ziztu bizian ospa egiten eban emaztearen altzora. Honetan be, atea zarratuaz batera ez eban atzera begiratu, baekian-eta zelango panoramea ixten eban etxean, baina ez eutsan larregi ardura, antza, ez. Ardura bakarra egunkaria erosi eta bideari ekitea zan.

Bilborainoko zatiari lar garesti eritxanez, handik arinago joan arren, ez eban sekula autopistea hartzen, beti kamino nagusitik joian. Artean, goizeko ordu horretan ez zan trafiko handirik ikusten, beharbada oporraldia zalako aurreko egunetan baino ibilgailu gitxiago ibiltzen zan. Holan, Iñigok, egunak ekarren sargoria ahal eban moduan saihestuz, oin lasaixeago etxetik kanpo, patxada ederrean eroian autoa. Patxada hori ederragoa izan ekion, gidatzen eban bitartean, inprentatik harako egunkariari gaintetik begiradatu bat egiteko ohiturea eban. Uda partean albistak urriagoak izan arren, beti egoan zeozer kolkoan hausnartzeko: herrietako jaien barriak, su-etenaren ika-mikak, Liba-

noko sarraskiak, Errusiako ekonomiaren gain-behera. Une batez Krutchev-en irudi harroa mahai gogorrari ukabilka pasau jakon burutik.

—Ah! Zelan aldatzen diran gauzak, kamarada! Horreek garaiok betiko joanak dira, bai horixe.

Gogoko eban holan kilometroak egitea, horretara kilometro gogaikarriok ez jakozan hain astun egiten. Halako baten, barriz, bide bazterrean egoan iragarki handi batek arreta erakarrri eutsan. Hurreratu ahala txakur handikote baten irudia ikusi ahal izan eban. San Bernardo horreetarikoza zan, tristurea aurpegian eta alboan mezu bat: “Berak ez leuke inoiz egingo”. Une berean, ia instintiboki, begiradea barriro egunkarira zuzendu eban. Arestian jaramonik egin ez eutsan albista batek inotsan, udaro, oporraldia heltzean, hirurehun txakur baino gehiago abandonetan dabezala.

—Kauenzotz! Horreek kabroi alenok! Hori egiten dauen morroia harrapauko baneu, neuk irakatsiko neuskio txakurak abandonetan. Putakumeak!

Iñigo txakurzalea zanik ezin esan eitekean, baina holango krudelkeriek bihotza samurtzen eutsien.

Aurrerago joanda, konturatu zan iragarki gehiago egoala. Ikusiaz batera benetan ernege-

tan eban, egundoko amorrua sentietan eban. Bat-batean, halango iragarki baten ondora helduta, aho bete hortz lotu zan. Ezin eban sines-tu bere begiek ikusten ebena. Balaztai txirrin ozena eraginez, beste auto bat bide bazterrean lotu barri egoan. Gidariak, erabat bere senetik aterata, beste aldeko atea zabaldu eta atsoa eta agure bat atera ebazan ostikoka. Autoa bi-dean arin galdu zaneko, atso-agure errubakoak hantxe jarrita gelditu ziran negar baten.

—Zer!! Oin jentea be abandonetan dabe? Ezin daiteke izan!

Iñigok, zurbil eta urduri, autoa gelditzea erabagi dau. Urten eta hurreratu jake atso eta agurreari.

—Parkatu, hemen zer jazo dan jakin neike?

Agurea burumakur egoan eta atsoa berba ulergatx batzuk harilkatzeko baino ez zan gauza.

—Gure seme zitalak etxetik bota barri gaitu, zelan da posible? Ai ene!!

—Igon autora, mesedez, igon! Hau ez dogu holan itxiko, non edo non salatuko dogu.

—Ai! Eskerrik asko, gazte. Jaungoikoak bendeinkatu zaizala!

Esan eta bikote zaharra, larogei urtekoa edo, hondino negarrez, ahalik eta erosoan jarri zan, gizona aurrealdean Iñigogaz batera, eta ema-

kumea, ostera, atzeko jarlekuan. Iñigo, harri-
durea kendu barik hondino, gizonaren arran-
gurak entzunez joian, andrea aieneka eten ba-
rik. Baina, egoera latz hori apur bat lasaitu zan
momentuan eta autorik ez etorrela aprobetxa-
tuta, gizon zaharrak bolanteari heldu eutsan
gogor, bitartean atzetik, andreak poltsatik ez-
karatzeko labana ikaragarri bat aterata Iñigo-
ren samea alderik alde ebagi eban golpe zehatz
batez.

—Holan, txarriak legetxe.

Iñigoren samatik borborka erion odolak hai-
zetakoa zipriztintzen eban. Agureak, trebezia
handiz, lortu eban autoa bide ezkutu baten
sartzea.

—Arin! Hutsitu txarrikume honen poltsiko-
ak eta goazen bizkor hemendik!

Geroxeago, beste errepide baten, atso-agure
batzuk bakarrik eta negarrez ikustean, beste
gidari bat gelditu da.

—Zer gertatu jatzue?

—Ai ene! Gure seme bihozbakoak etxetik
bota gaitu, hau zoritxarra!!

**BROADWAYKO ISTORIOAK.
ANTZERKIGILE ETA
TXAKURRARENA**

Antzerkigilearena

Jean Pierra Mitikilekoa da, Matalasen
herrikoa.
Koblakari aparta eta errejenta pastoraletan.
Honezkero
hiru jokatu ditu. Gogoak emon deutso
Broadwayn ospea
lortu behar dauela.
Oin Broadwayko oinezkoen artean txaloak
bilatzen ditu espaloian, inork ulertzen ez
dauen
berbeta baten txakur bati dantzan eraginez.

Broadwayko antzerkigilearen txakurrarena

Aspaldian ützi nüan herria Jean Pierrak,
ene jabeak,
Broadwayn ospea erdietsi nahi ükan beiti.
Orai, gupida handiz, Broadwayko karrikan
betetzen düüt jabearen manatiak bederen
zer jan
ükan dezagün.

Broadwayko antzoki bateko jagolearena

Zu! Trauskilori terrorista izan eitekean kontu ha ez neban nik asmau. Susmo txarra baino ez neutsan hartu, horixe zan dana, baina poliziak nahi dauenean...

Broadwayko antzoki bateko txartel-saltzailearena

Bai, morroia etorri jatan eskuan dolar bategaz sarrera erosteko asmoz edo, baina nik banekian marru hutsa baino ez zana. Eukan trazea eta berbeta ulertezin haregaz. Zu! Telebistan azaltzen diran horretarikoa lakoxea zan, bardin-bardina, eta txakurra ikusi izan bazendu!

Bai ba, neuk deitu neutsen... zer dinostazu?

Oin Guantanamo daukiela? Banegoan ba, zuzen nenbilen eta.

Guantanamo atxilotuta dagoan afganistandarrarena

Beste koitadu bat ekarri deuskue, batek daki nondik.

Hasi natxako susmo txarra hartzen, eten barik egoten da

oihu antzera kantetan bape ulertzen ez dan berbeta baten.

Uste dot amerikarren kontua dala, nekearen nekez leporatzen

deuskuezan izugarrikeriak azkenean autortu daiguzan.

Baina zer arraio! Hamaikatxotan ahalegindu izan naz extremeñoa

nazala esaten, eta ez afganistandarra, baina itxura danez, horrek ez deutse amerikarrai ardura.

Txakurra jan behar izan dogu, artista hutsa zan arren.

ENBORREN NEGARRA

Ugazabak ez eban sinisten txabolako bentanatik ikusten ebana. Behargin ilara bi, trenbidearen alde banatan, linternen argipean astiro hurreratuz etozan tunelaren aho-zulora. Bestaldekik etozan. Jazoten zan lehenengoa ez zalako, bestela ugazabak pentsauko eban udako ilunpean dilindan ibilten diran ipurtargiak zirala bentanatik ikusten ebazan argitxuak. Beharginak txabolara hurreratu ahala palankak eta pikotxak bertan behera ixten ebezan begietatik irrist egiten eutsen negar-arpuluak siketako. Hain goibel egozan... Ugazabak agiraka egin eutsen beharrera bueltau eitezan. Alperrik baina. Ugazaba nekatuta egoan hainbat egun lehenago hasitako egoereaz. Egunero bialtzen ebazan beharginak tunelaren bestaldera trenbidea zabaltzeko, eta egunero beharginak buru makur bueltetan ziran, trenbide metro bat be aurreratu barik. Banke-txeetako arduradunak hasiak ziran kezkatzen ea zergaitik trenbidea ez zan eregiten. Dirutzea galduko eben trenbidea sasoiz eregi ezean.

Urtebete eroien beharrean herrialde haretako uri nagusi biak batuko ebazan trenbidea

eregiteko. Herrialde haretan egingo zan inoizko lanik handiena zan trenbidea. Jente asko egoan trenak herriari garatzen lagunduko eutsalakoan. Hasikeran dana ondo joan zan. Bazter guztietatik etorririko ehunka beharginek lurra eraldatzen eben. Malkarrak zelaitzen ziran trenbidea zabaltzeko, basoak botaten ziran, errekek zubi barriakaz zeharkatzen ziran eta mendiak errez zulatzen ziran tunel luze-luzeak egiteko. Dana ondo joan zan harik eta trenbideko tunelik luzeena egiten hasi arte. Goizalba baten ekin eutsien. Beharginen metalezko kasioen argiek itzartu ebezan inguruko oilarrak, eta honeek kikiriko ozenakaz aurrerratu eragin eutsen egunaren urdinari. Baten batek ikusi ei ebazan bazterretako zaharrak Aitaren egiten. Eta okin bat ernegetan. Eta atso bat zubitik begira lotu zan errekan bat-batean suertau zan mareari. Gorri-gorri, odolaren tankerakoa, urten eban goizak martiko egun haretan. Belatxinga batek zeharkatu eban zerua alderik alde.

Harria zulatu ahala arbolen zuztarrak azaltzen ziran han eta hemen, edonon, txikiak eta meheak batzuk, luzeak eta lodiak besteak. Amaraun itzela zan, edo beharbada, zanen antzeko zeozer. Ez egoan gunerik zuztarrek beteten ez ebenik. Pikotxak trabatzen ziran golpeak egikeran eta beharginek, aurrera egingo ba-

eben, zuzterrok ahalegin handiz ebagi behar izaten ebezan esku propioez. Kentzean, zuzterrek barruan eukien izerdi likitsua eroaten eben bekokira. Esan eitekean gorputz osoa izerdiz blaitzen ebela. Izerdiari izerdi. Eta goian arbolak siketan ziran. Azkenean, mendiaren bestaldera ailegaukeran, dana prest egoan oholak ipinteko, ostein burdinazko errailak ipinteko. Orduan hara zer izan zan kontua: zuzgatz oholak lurrean etxuterakoan beharginak tristatu eta negarrari emoten eutsien, zergaitik jakin barik. Erietzan negar-arpuluak zuzterren izerdia lakoxeak ziran. Hori da behinik behin batek esan ebana, beste gauza batzuk be esan arren. Eta holan egon ziran aldikada baten. Oholak ipinten ahalegintzen ziran, baina ez egoan zer eginik, ezin eben. Tristura minkor batek berehala jotzen ebazan. Ugazabaren dea-darrak alperrekoak ziran oster, behargin guztiak alpertu ziralakoan egoan, adarra jotzen baino ez egozala inoan. Eta txanda barriak antolatu ziran, eta gabaz be ahalegindu ziran ea holan konpontzen zan. Eta abade bateri be deitu eutsien. Eta baten batek gura izan eban makina bat asmau oholak urrunetik ipinteko. Baina, makinea be aberiau zan lanari ekitean. Bien bitartean, han bertan etzazan oholak, enbor hilak baino ez ziranak, trenbidearen bazte-

rrean geldi, bata bestearen gainean meta baten, eta beharginak inguruan negarretan eten barik.

Orduan, beharginetariko batek paper-orri bat ekarri eban. Urrineko kazeta bateko paper txatala zirudian. Eta akordeoi txiki gorri bat azaldu zan paperean, Italiakoa, disdiratsua. Bai, haxe zan behar ebena, beharbada tristura arintzeko balioko eutsena. Akordeoi txikia. Eta inguruko abade batek lehenengo biderrez doministiku ozena egin eban. Beharginek arin baten batzarra egin eben eta ugazabari eskatu eutsien hainbat akordeoi txiki erosteko. Zenbat? Behar ziran guztiak. Derrigorrezkoa bazan, beharginek egoera haretan be huelgara joko eben akordeoiak erosteagaitik. Ugazabak unekada batez mosua okertu eban beharginen eskaera zelebrea entzukan. Halanda be, onartu eban. Danerik egiten ahalegindu zan beharginak lanera bueltau eitezan, dana alperrik baina; horregaitik orduko horretan ez eban gauza handirik galduko, diru apur bat beharbada. Probau behar zan ea zer pasetan zan. Eta inguruko abade batek bigarrenez doministiku ozena egin eban. Handik egun batzuetara itsasontzi batek Genovako portua laga eban. Kataniko orio eta Parmako gaztaien artean Alpeetako ibarretako akordeoi txikiak, diatonikoak, ekarzan. Dan-danak gorriak, beharginentzat

beren-beregikoak, alaitasunari eta iraultzari kantetako. Olatuek akordeoiak gordetan ebezan kutxai atera eragiten eutseezan soinuak Liguriako izaroetako sirenak be lotsatzeko gai ziran. Handik laster, itsasontzia gero eta hurrago egoan kostaldetik eta inguruko abade batek hirugarrenez doministiku ozena egin eban.

Eta hirugarren doministikuagaz batera, halabeharrak nahi izan eban ontzia portura ailegetako hur egoala itsasoan upealako afruntua altzetea. Zerua zeharo baltzitu zan, euria bota ahalean hasi zan eta haize zakarrak olatuen bitsa gogor harrotzen eban itsasontziaren brankaren kontra. Portu ondoko faroa baino ez eban lagun eta gidari zoritxarreko ontziak bat-bateko iluntasun haretan. Baina faroa agertu eta desagertu egiten zan ortzi-mugaren marra-aren azpitik, harik eta marinelek argia begi-bis-
tatik erabat galdu eben arte. Iluntasunak tragau eban. Holan, erabat galduta egozan olatu erral-
doi eta kostaldeko arroken mendean. Halako baten, baina, argitxu bat agertu zan lehorreko partetik, dilindan zirudian afruntuaren erdian. Haxe izan behar faroko argia. Eta ontziak atzera be branka argirantz zuzendu eban. Hain zorte txarragaz, ze ontzia artezean joan zan ha-
reatza bateko arroken kontra. Milaka zatitan puskatu eta bertan hondoratu zan betiko itsa-

sontzia. Idizain batek ekarri eban albistea herrira, afruntuko gabetan labarretan eta hareatzetan ibilteko idi pareari adarretatik argiak zintzilikatzeko ohitura eukan berak. Eta itsasontziagaz batera akordeoi guztiak galdu ziran. Hantxe lotu ziran, itsasoaren hondoan, gorri-gorriak goroldioaren berdamenean han eta hemen barreiatuta, likorezko bonboien papera lez.

Norteko haizeak joten dauenean, afruntu egunetan, olatuek astintzen dabez eta inguruko bazter guztiak akordeoien orroa eta soinuez beteten dira idien deskontsolamendurako. Orduan, halango egunetan trenbideko beharginak paretan dira moila zaharraren gainean itsasora begira bertatik ailegetan jakezan soinuai adi. Bertan dagozanean bakarrik ixten deutsie negar egiteari. Negarrak enbor hilakaitik. Atzenez, trenbidea bertan behera itxi eta beste bat hasi eben itsaso ondoan.

ESATARIARENA

Ia begiak paperetik erretiratu barik, esata-riak tonu aspertuaz albista parrastadeari ekin deutso:

—Aznarrek Lehendakariaren plana deitoratzen dau, Bushek aurrera segitzen dau Iraki eraso egiteko plana garatzen, Putinek 119 pertsona gaseatu dauz Moskuko antzoki baten, Sharonek Israelgo armadari agindu deutso herri palestinarren aurkako errepresinoari eusteko...

Halako baten, kamerara zuzen begiratu dau, begiek dirdira berezia egiten dabe kezka eta itxaropen artean:

—OT-ko neska-mutilak ondo dagoz.

MAITASUN DESPUZTUA

*Hamaika arrosek
ezin dabe edertu
arrosa bakar batek
edertzerik ez daukana.*

Gizona isil-isilik, ia behatz-puntetan, sartu zan hoteleko gelara. Euskaldunara adi, Sheraton hoteleko 415. gela dotorera sartzean arnasea sakon hartu eban eta unetxo batez eskuan batetik bestera ibili ebazan giltzak, burdinaren hotza hobeto sentitzearren beharbada. Poltsak mahai gainean itxi ebazan eta barruko gelatxo batera jo eban.

—Hola laztana, bueltan nozu; ez zara ni barrik aspertu?

Soineko baltz ederra janzten eban neskeagana inguratu eta larrosa gorria paparrean ipinten eutsan bitartean, musu eztsua pausatu eutsan ezpanetan. Zerbitzariak amaitu eben mahaia txukuntzen eta bajoiazan.

—Arratsalde osoa guretzat da laztana.

Ahora eroiazan koilarakaden artean, gizonak ez eutsan neskeari begiratzeari ixten. Ha-

ren lerdentasunak zeharo aztoratzen eban. Bular aldera jausten jakon adats baltz luzea, zango amaibako hareek, akatsik bako narru epel eta gozatsu ha. Dana zan neskearen emetasun betearen adierazle. Gizonaren itoa.

—Gaur be ez zara gose, enetxoa? Akaso xanpainik nahi?

Kopa beteteko atxakiaz zutundu eta bizkarretik hurbildu jakon. Urrezko belarritakoak poliki miazkatu eutsazan eta belarrira xuxurla-ka:

—Ekarri deutsudan erropea jantzi daizun nahi dot, egingo deustazu mesede?

Barruko erropea poltsatik aterata, gizonaren eskuek erabagi eben neskea biluztea. Soin biluziari erion usain erakarrorari une batez muzin eginez zeremonia handiz jantzi eban erro-pa barriaz,

—Holan hobeto zagoz, laztana.

Neskea besoetan gisa horretan jantzita ikus-tean berpiztu jakon egun osoan buruan erabil-en gogoa. Xanpaina isuri eutsan kuleroaren eskudetea eta, txakur egarbera balitz lez, itxi eban bere burua bertara mozkortzeraino eroa-ten.

Luze, luze joan jaken fereka eta hasperenen artean nekeak desioa agortu arte. Baina, gizo-nak kuttunaren sexua gorrimin koloreko larro-

saz ferekatzen eutsan momentuan, aurrerantzean bakarrik kiratsa jarioko jakon larrosa malapartatuaren arantza doilor batek maitalearen azal leuna urratu eban. Etsita, gizonaren samina egin zan gelaren jabe panpina despuzteaz batera. Lehen bular joriak eta izter mardulak ziranak orain bat-batean itxura bako plastiko karkaila baino ez ziran. Bizia emoten eutsan airea bajoakola izu-laborriz ikusita, gizona zoro antzera hasi zan laguntza eske. Hotelekoek okerrena pentsauta eta arineketan gelara iristean, gizonaren anpuluak bihotzeko maite puzgarriaren latexeko azalean isurtzen ziran.

Alperrik baina, kuttuna ez zan sekula gehiago bizira bihurtuko.

EPILOGOARENA

Goizean, gure aitita igaro da Joxek, domekako paseoan joiala, aspaldian zarratuta dagoan lantegiaren hesi zikinean idatzi eban esloganaren aurretik eta klarion zati batez letra handiz idatzi dau:

NON?

AURKIBIDEA

Prologoarena	7
Michel	11
Ametsarena	25
Alizia	29
Aitaren azken borondatea	33
120 harmaila	37
Anderrena	55
Zapata baltzak	59
Juan eta Migelena	73
Titanic	77
Keparena	95
Egurrezko hankak	99
Jon Mirande Bilbon	103
Medikuarena	117
Elektrotresnak	121

Joxerena	127
Leihotik begiratzea atsegin dot	131
Hungariako erregearena	139
Errepidean	143
Broadwayko istorioak.	
Antzerkigile eta txakurrarena	151
Enborren negarra	157
Esatariarena	165
Maitasun despuztua	169
Epilogoarena	175